

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK


2022

2022

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK



bbk



R.M.^a AZKUE
LITERATURA SARIAK

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK

R. M.^a Azkue

Literatura Sariak

2022

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

EUSKALTZAINDIA

BILBO

2023



EUSKALTZAINDIA

bbk²

Testuen hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA).

- © Idazle bakoitzak bere testuarena.
- © Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak argitalpen honena.

ISBN: 978-84-127506-7-6

L.G.: BI 00321-2024

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak 2022ko R. M.^a Azkue Literatura Sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak batu dira liburuki honetan.

* * *

Deialdian partaidetza-maila bi bereizi ziren, adinaren arabera:

A maila: 2009, 2010, 2011 eta 2012an jaiotakoak.

B maila: 2005, 2006, 2007 eta 2008an jaiotakoak.

Literatura generoari dagokionez, batetik, narratibolarik eta, bestetik, olerkiak eskatu ziren maila bakoitzerako.

* * *

Lehiaketa eta liburu honekin, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak euskal eskolaumeak literaturgintzara bultzatzeaz gainera, ikasleон irakurzaletasuna indartzea dute helburu nagusi.

AURKEZPENA

13. or.

«HOTZA»

Noa Martínez Azofra, 13 urte

Narbaxa (Araba)

Narrazioa. A maila. Lehen saria

19. or.

«MARTINEN ISTORIOAK»

Lur Martin Ansa, 11 urte

Oiartzun

Narrazioa. A maila. Bigarren saria

23. or.

«MUNDUARI BEGIRA»

Lorea Arruabarrena Destribats, 13 urte

Oiartzun

Narrazioa. A maila. Hirugarren saria

29. or.

«BERA DA»

Leire García de Vicuña Alzola, 13 urte

Agurain

Olerkia. A maila. Lehen saria

31. or.

«ZERGATIK?»

Manex Arabolaza Palomo, 11 urte

Oiartzun

Olerkia. A maila. Bigarren saria

33. or.

«HILDAKOAK»

Iraia Arabolaza Ojanguren, 11 urte

Oiartzun

Olerkia. A maila. Hirugarren saria

35. or.

«HAITZULOAREN ALE GORRIA»

Nahia Iturbe Orbegozo, 17 urte

Tolosa

Narrazioa. B maila. Lehen saria

43. or.

«ERORKETA ASKEAN»

Eneko García Muñoz, 15 urte

Zumarraga

Narrazioa. B maila. Bigarren saria

55. or.

«OHIKO GOIZA»

Unai Mendizabal Lekuona, 17 urte

Zegama

Narrazioa. B maila. Hirugarren saria

63. or.

«(MIN-)MALKOAK»

Kattin Madariaga Apaolaza, 14 urte

Arantza (Nafarroa)

Narrazioa. B maila. Aipamen berezia

77. or.

«DENBORAREN TXOTXONGILO OMEN GARA»

Iraide Mitxelena Rivero, 17 urte

Errenteria

Olerkia. B maila. Lehen saria

81. or.

«GLURP, GLURP!»

Beñat Mateos Zeberio, 17 urte

Asteasu

Olerkia. B maila. Bigarren saria

85. or.

«URA ETA KALIMA»

Aiala Garabieta Oribe, 17 urte

Bilbo

Olerkia. B maila. Hirugarren saria

HOTZA

Noa Martínez Azofra

Narbaxa (Araba)

Bainuontzitik ateratzen den ur-lurrunaren usain gozoak lixibaren kiratsa estaltzen du. Izarak erre ditut jada, baita arropa guztiak ere. Zu hor zaude, begi ilun distiragabe horiekin niri begira. Normalean baino zuriago zaude, izotza bezala; hotz eta zuri. Zurrun zaude, ni, bestalde, oso lasai; bular gaintetik pisu handia kendu dut, ez naiz errudun sentitzen. Oraindik ez dut poltsa bota, baina orain horrek ez nau arduratzen; goxo nago bainuontziko apar zuriaren artean. Bai, lasai nago.

Usain desatsegina duzu, baina esan beharra dut, zure goizetako kafe-usaina baino gustukoago dudala. Bainu honen ondoren kotxea hartuko dut, urrun joango naiz, ez dakit nora, baina urrun. Nirekin eramango zaitut, atzealdean, poltsa beltzaren barruan.

Eserlekua hotz dago, normalean baino gehiago. Zure amak oparitutako botak aldean daramatzat, gabonetan oparitu zizkidanak. Gau hartan oihuak izan ziren sukaldean, bi plater apurtu zenituen, eta kristalezko ontzi bat... Ez dut uste inoiz hainbeste malko isuri dudanik. Bota hauek jantzita neuzkan

etxeko paretak margotu genituenean ere; txokolate beroak eta gaztain erreak egin zenizkidan gero. Kartetan egin genuen sutondoan, eta bertan lo geratu ginen. Hurrengo goizean garrasika esnatu ninduzun, nire erruz beranduegi esnatu zinela leporatu zenidan. Biak haserretu ginen, eta nik, negarrez bukatu nuen; besarkada bat eman zenidan eta betiko «lasai, ez da ezer gertatzen» baten ondoren, musua doan eman zenidan kopetan. Gau hartan afaria genuen lagunekin; gau osoan ez ninduzun begiratu, ezta hitzik esan ere; lagunekin egon zinen barrezka nik nire platerari begiratzen nion bitartean. Desatsegina izan nintzela esan zenidan, hotza, inorekin hitz egin ez nuelako; lotsagabe hutsa, zure lagunen aurrean lotsagarri uzteagatik.

Ordubete pasatu da jada etxetik atera garenetik. Lehen aldia da hainbeste denbora eman dugula borrokatu gabe; lehen aldia, gidatzen dudan bitartean eskutik heldu ez didazula; lehen aldia, hitz bat bera ere esan ez duzula. Ez da isiltasuna, isiltasun zaratatsua baizik, hainbeste gauza esaten dituen isiltasuna.

Bernadette Carrolen *Laughing on the outside* entzuten goaz. Abesti hori nirekin dantzatu zenuen lehen aldian, luxuzko jatetxe *pijo* horietako batean geunden. Abestia entzun zenuen momentuan bertan, eskutik hartu ninduzun eta dantzan hasi zinen, inor begira egongo ez balitz bezala. Jatetxe osoa hankaz gora jarri zenuen; jende guztia dantzan hasi zen, baita dantzan edota irribarrez inoiz imajinatuko ez nituzkeen gizonak ere. Iskanbila handia sortu zenuenez, jatetxetik bota gintuzten

eta zure apartamentuan bukatu genuen gaua, *Glimom Girls* ikusten.

Ordutik aurrera, ostiralero elegante janzten ginen, afari berezia prestatzen genuen, ardo botila irekitzen genuen, biniloa kutxatik atera eta, dantzan hasi... Ostiral guztietan, gaur izan ezik.

Ez nituen errepide honen gorabehera hain gogorrek gogoratzen, baina azkenean, iritsi gara etxetxora. Ez da aldatu, berdin jarraitzen du; egurusaina, urteetan margotu gabeko paretak, leiho zaharrak eta inguruko landareak. Goxotasun sentrazioa ematen du, babesa.

Etxe honetara etorri ginen lehenengo aldia, atzoko kontua balitz bezala oroitzen dut. Nire osabarena zen, udazken zoragarri hartan oparitu zigun. Orduan ez genuen etxerik, zure apartamentutik nirera bueltaka ematen genuen eguna. Hasieran asko kostatu zitzaizun hiriko bizitzatik aldentzea, baina gutxika, zuhaitzen eta goizeko kafearen usainera ohitzen joan zinen.

Etxe honetan eduki genuen gure lehenengo katu, gure lehenengo borroka, gure lehenengo gabonetako afaria, lehenengo plater apurtua, lehenengo mahai-joku gaua, lehenengo negarrak, lehenengo pelikula-gaua, idatzi zenidan lehen abestia, lehen oihuak... Lehenengo ihesaldia liburutegira. Haseurretzen ginen bakoitzean, liburutegira joaten nintzen. Orduak ematen nituen bertan, liburu zahar artean murgilduta. Lasaitasuna ematen zidan leku hark; ez nuen zutaz arduratu behar, zure oihuez. Nire babeslekua zen, txita baten habia bezalakoa. Liburuen artean seguru sentitzen nintzen,

nire sentimenduak atera nitzakeen. Zurekin ordea, ezinezkoa zen. Bukatuta dagoen puzzle batentzat pieza txikietan haustea bezela zen, mugituko ez den pareta bat bultzatzea, inork erantzungo ez dion dei bat egitea, inoiz iritsiko ez den eskutitz bat itxarotzea; ipar-haizearen kontra hegan egitea bezala zen.

Egia esanda, ez naiz egindakoaz damutzen. Pozik nago, libre sentitzen naiz, oparitu zenidan ardo botila garesti hura irekiko dut ospatzeko. Ez dut uste inoiz orain baino hobeto sentitu naizenik, mundua bukatu arte oinutsik dantzatzeko gogoia dut. Ez dut inungo presarik, orain ez dut ezertaz arduratu behar, sabelean nuen sentimendu-korapiloa askatu dut jada.

Orain arte ezin nion zu maitatzeari utzi, negarez uzten ninduzunetan ere ez nintzen gai. Orain, ordea, esan zenizkidan gauzez, zure promesez eta nire barkamenaz barre egiten dut. Orain gai naiz zugan pentsatzeko eta inongo sentimendurik ez sentitzeko, gorrotoa eta nazka izan ezik.

Zure aitak oparitutako plater garestiak apurzen ari naiz, inoiz ez ditut gogoko izan. Musika-bolumen altuenean dut jarrita, nire mamuak entzun ahal ez izateko. Errekara noa bainu bat hartzera; ilundu du dagoeneko, ura hotza dago, zure bihotza bezala. Gustatzen ez zaizun bikinia jantzi dut, jartzen uzten ez zenidan hura. Zu gabe gehiago disfrutatzen dut. Kateak apurtu ditut.

Idatzi nizkizun eskutitz eta istorio guztiak sartu ditut uretara, hitzak apurka-apurka itotzen doaz, inoiz erantzun ez zenien hitzak. Zuretzat ez naizen pertsona bat bihurtu nintzen; gozoa,

leuna, alai... Baina, azken batean, arkumearen azpian otsoa izkutatzen da. Neure buruari iruzur egin nion, maskara faltsua eramane nuen urteetan zehar. Orain, naizena izateko gai naiz, psikologo-emakumeak kontu handiz ibiltzeko esan zidan; neure burua kontrolatzeko. Hala ere, ez diot kasurik egingo; neure burua txotxongiloa izateaz eta edozeinek mugi ditzakeen sokez loturik egoteaz nekatuta nago jada. Nahi dudana egingo dut, nahi dudana jantziko dut; neugan pentsatuko dut. Ez dut ezertaz arduratu behar, ondo nago, ondo baina hobeto.

Bihar, beharbada, kezkatuko naiz, baina ez zait damutuko, ez naiz inoiz gertatutakoaz damutuko.

Oraingoz, uretan geratuko naiz, ur hotz honetan. Gora begira, ilargi ederrari begira, nire gorputza ur hotzak kulunkatzen duen bitartean.

MARTINEN ISTORIOAK

Lur Martin Ansa

Oiartzun

Kaixo denoi! Duela urte asko gertatutako istorioa kontatuko dizuet gaur, zortzi urte nituenekoa, hain zuzen ere.

Nik, Martin dut izena, ile beltza neukan, azal zurixka eta pekatsua, eta begi urdin biziak, itsasoa bezalakoak.

Beste haur guztiak bezalakoa nintzen, futbolzalea eta isila. Kaleko agure zahar batek bizia aldatu zidan arte. Ingalaterrako herri txiki batean bizi nintzen. Egun elurtsu batean, poz-pozik nindoan kaletik nire bigarren hortza eskuan neukala. Baina bat-batean hots bat entzun nuen:

—Mutiko, mutiko!

Alde batera eta bestera begiratu nuen baina ez nuen ezer ikusi. Orduan berriro entzun nuen:

—Mutiko, mutiko!

Berriro begiratu eta hantxe agure zahar bat neuri deika. Zer nahiko zuen nigandik? Beregana gerturaten hasi nintzen eta eskutik eutsi zidan; ni beldurtuta nengoen, eta orduan poltsikotik liburu bat atera zuen eta eskuan utzi zidan. Galdetu nion zertarako behar nuen liburu bat, futboleko ibiltzea askoz dibertigarriagoa zela, eta erantzun zidan:

—Irakur ezazu, eta gero erantzun.

Harrituta joan nintzen etxera. Baina gau hura gau interesgarriena izan zen, sekulakoa.

Liburua behatzen hasi nintzen. 376 orri zituen eta ez zuen marrazkirik, oso aspergarria iruditu zitzaidan baina agureari eta liburuari aurrerabidea ematea pentsatu nuen. Liburua irakurtzen hasi eta lehenengo kapitulura iritsi orduko liburuarekin liluratuta nengoen; gau oso-oso irakurtzen eman nuen.

Hurrengo egunean ikastolako motxila prestatu eta liburua eskuetan nuela ikastolara joan nintzen. Nire lagunei erakusteko irrikan nengoen, baina haien erantzuna ez zen nik uste nuen bezalakoa izan. Burlaka eta barreka erantzun zidaten:

—Agure zahar batek emandako liburuak gustatzen zaizkizu, ala? Kar-kar-kar!

—Futbola baino dibertigarriagoa dela uste duzu? Orduan ez jolastu gurekin! Kar-kar-kar!

Eskolako klaseak bukatu eta gero triste bueltatu nintzen etxera. Betiko bidetik joan nintzen eta hantxe zen agurea berriz ere, banku batean eserita. Nik eskolako ogitartekoa eman nion eta berak beste liburu bat eman zidan.

Egun askotan horrela jarraitu genuen, nik ogitartekoa eman, berak liburua niri. Baina horietako egun batean zera esan zidan:

—Agur Martin, espero dut nire liburuez gozatzeko jarraitzea.

Gauza normaltzat hartu nuen nik. Agur esan nion eta etxera itzuli nintzen, baina egun horretan eman zidan liburua behatzen ari nintzela, giltza bat

aurkitu nuen, ohartxo batekin liburuaren barruan. Jartzen zuena irakurri nuen:

Kaixo Martin, zer moduz zaude? Espero dut nire liburuez asko gozaten jarraitzea, ni iluntasunak eramaten nauenean ere. Giltza honek nire liburutegia irekitzen du eta orain zeurea izango da, horrela liburuak irakurtzen eta idazten jarraituko duzu, nahi duzun beste. Mou txokolategiaren atzeko belardian dagoen etxetxea dut liburutegia; gozatu gelditzen zaizun guztia liburuez. Ahaztu gabe, bertan Mius neure katuaren konpainia ere izango duzu.

Kaleko Agurea

Hurrengo egunean eskolatik bueltan, agurearentzat ogitartekoa eskuan nuela betiko bankura joan nintzen. Baina agurea ez zen ageri. Ezta hurrengo egunetan ere. Orduan azkeneko egunean esan zidanaz eta bere gutun hartaz gogoratu nintzen. Kikilduta hilerrira joan nintzen, lore-sorta eskuan nuela. Han zegoen agurearen argazkia hilarri batean. Beste hilarriguztiak lorez betetze zuten, hura izan ezik. Orduan neure lore-sorta utzi nion agureari. Gero etxera bueltatu nintzen, burumakur, agureak emandako giltza hartu eta Mou txokolategiaren atzeko belardian zegoen etxera joan nintzen. Giltzaz atea ireki eta han ikusi nuenak zur eta lur utzi ninduen.

Den-dena liburuz beteta zegoen; eta hantxe zegoen Mius ere, liburu-pila baten gainean, begi berde horixka distiratsuko katua. Ordutik aurrera egunero joaten hasi nintzen liburutegira. Baina horietako egun batean gelako harropuz horiek jarrai-

tu egin zidaten, eta etxera bueltatu nintzenean, liburutegia suntsitu egin zidaten. Hurrengo egunean liburutegira itzuli nintzenean, dena erreta zegoen, liburu eta guzti, baina Mius atetik sartu zen, lepoan gutun bat zeukala: «Hauxe pena, Martin! Kaleko agurearen liburu aspergarri guztiak suntsitu dira! Ene, ene!».

Kristoren amorrua sartu zitzaidan, argi zegoen zein izan zen. Nire gelako harroputz nazkagarriok! Orduan Gorkaren etxera joan nintzen, zelaian sartu, labana eskuan nuela, eta bere baloi guztiak zulatatu nituen. Horietako batean gutun bat utzi nuen, hauxe zioena: «Hauxe pena! Zure baloi nazkagarri eta aspergarri guztiak suntsitu dira! Ene, ene!».

Orduan, liburutegirako bidean zer egin pentsatzen ari nintzela, ideia bat bururatu zitzaidan. Agureak liburu guzti horiek idatzi baldin bazituen, zergatik nik ez? Eta orduan hasi nintzen istorioak sortzen, hainbat istorio. Urteak eta urteak igaro nituen liburutegi horretan, den-dena txukuntzen eta liburu gehiago idazten.

Baina zaharra naiz dagoeneko eta azken liburua idazten bukatzen dudanean (nire bizitzari buruzko ipuina), neuri tokatuko zait kaleko agure zaharra izatea.

MUNDUARI BEGIRA

Lorea Arruabarrena Destribats

Oiartzun

Zahartzaroa, zaharren aroa, bizia laster amaituko dela dioen aroa. Ikusi behar dena, dagoeneko ikusia dagoela dioena. 95 urte, zenbaki potoloa.

Egunak aurrera doazen heinean, nire egitekoez arduratzen jarraitzen dut: lehenik, loaldi eder bat; ondoren, indarrak hartzeko, gatz mineral asko dituen gosaria; jarraian, egun guztia inguru eder eta maitagarriari so eman; azkenik, eguna bukatzeko, inoiz ikusi ez den afari osatu eta handiena.

Gaur ni bisitatzera etorri zara, egunero goizeko 9:30ean egiten duzun bezala. Beti bezain pozik hartu zaitut eta besarkada bat eman didazu. Neure ondoan eseri zara eta zure istorioa berriro kontatu didazu: «Dakizun moduan, amaren falta sumatzen dut, 2018. urtean beraren heriotza bizi izan genuenetik. Etxeko egoera ez da erraza. Aita ni bezain triste dago eta neba lanean ari da, etengabe, gertatu zenaren inguruan ez pentsatzeko. Goizero bezalaxe, zeugana nator; nire kontuak, ezer esan gabe, entzuten dituzulako eta zure besarkada goxo horietako bat jasotzeko». Beste besarkada bat eman eta joan egin zara.

Telmo, zu, aldiz, nire aurrean bizi zaren gizon hori. Zure oin bakarrak gerra gogorarazten dit, biok ikusi baitugu gerra. Ziur nago jadanik 20 aldiz kontatu didazula zure istorioa: Espainiako Gerra Zibila; hegazkina hartu zenuen eta herria babestera atera zinen. Arerioen tiro batez beheraka hasi eta lur jo zenuen; hegazkineko beira hankan sartu zitzaizun. Ebakuntza egin zizuten eta, azkenean, 3 ordu eta 30 minuturen ondoren, bizirik ateratzea lortu zenuen. Geroztik oin bakarra duzu, Telmo.

Neure gainean zerbait sumatu dut. Tripa horixka eta hegal urdin txuri berdexkak dituen hegazti eder bat ikusi dut. Txistuka hasi da, ondoren, hegoak zabaldu eta joan egin da.

Gogoan dut, auzoa kolorez janzten duten astea, bertako jaiak direnean. Jende asko etortzen da, adin guztietakoa: umeak, gazteak, helduak eta aitona-amonak. Auzotik korrika ibiltzen dira umeak eta gazteak; zaharrak eta helduak, aldiz, hizketan edota jan-edanen dastaketan aritzen dira. Poza ematen du auzoa kolorez eta jendez beteta ikusteak.

Auzoko jaietako egun batean, bi mutil gazte eseri zaizkit ondoan; gutun bat idazten ari dira, halaxe dio:

2022ko uztailaren 25a, astelehena.

Kaixo, ama eta aita! Zer moduz zaudete? Denbora asko da ez dugula zuen berri izan, laster elkar ikusiko ote dugun galdetu nahi dizuegu. Hemen auzoko festak dira, ez dute Mauritanian festen antzik, baina oso ondo pasatzen ari gara, hala ere. Gerra noiz bukatuko den galdetzera ez gara ausartzen, baina laster bukatzea espero dugu. Zuen falta sumatzen

dugu eta maite zaituztegu! Muxu handi bat, Ismat eta Yaroren partez.

Ismat eta Yaroren gutuna entzun dudanean, geratik datozen haurrak direla konturatu naiz, iluntasuna eta hotza sentitu duten haurrak dira.

Musika entzun da; han dator musika-eskolako taldea, asteazkenero bezala. Nire inguruan eseri eta musika-tresnak jotzen hasi dira. Nire entzumena doinu eder eta zoragarrien atea bihurtu da.

Urrutira, ahots batzuk aditzen dira... Nire albora iritsi dira:

—Hemen ere, zerbait egin behar da —dio emakume batek.

—Bai, arrazoi duzu, toki handia beharko dugu proiekturako. Argazki bat aterata nahikoa izango dugu udaletxean erakusteko —erantzun dio beste langile batek.

Udaletxean lan egiten duten langile batzuk ziren, zer egin nahi ote dute?

Gaur ere, mundua begiez miatzen ari naizela, bisita izan dut. Kai izeneko txakurra hurbildu zait eta lurreko adaxka bat hartu du. Nire inguruan jolas-tu da eta bihurri xamarra denez, gorputz-barrenak koskatzen hasi zait. Txakurtxoaren jabea berehala etorri da eta errieta egin dio.

Elurra: ingurua zuriz margotzen duen ura. Elur-maluta bat sumatu dut eta zerura begiraturaz, munduko paisaiarik politena sentitu eta ikusi dut. Ez da elurra ikusten dudana lehen aldia, ezta bigarrena, ezta hirugarrena ere, nire 95. negua baita hau.

95 neguz gain, 94 udazken, udaberri eta udaz bizi-raun dut eta urtaro bakoitzean opari eder hauek sentitu eta gozatu ditut. Loreak: mundua kolorez betetzen duten landare dotoreak. Eguzkia: ekialdetik ateratzen den izpia. Haizea: gorputza besarkatzen duen airea.

Mundua erabat aldatu da 95 urtean. Garai batean nekazari gehiago ikusten zen, orain emakume kirolari gehiago. Lehen gaur egun baino gerra gehiago zegoen. Orain jende gazte gutxi hiltzen da... Bizi-itxaropena itzel igo da. Auzoetako eta herrietako jaiak aldatu egin dira: lehen dantzaldi gehiago egiten zen, orain jende guztia tabernetan sartuta egoten da... Azkenik, aldatu ez den gauza bakarra elkarrekiko laguntasuna eta maitasuna da.

Berriro ere, udaletxeko langile horien ahotsak entzun ditut:

—Tokia prestatzen hasiko gara proiekturako, ezta? —dio udaletxeko langile batek.

—Bai, baina, lehenik, materiala atera beharko dugu —erantzun dio besteak.

—Eta, ondoren zer egingo dugu, zuhaitza bota? —galdetu du udaletxeko neskak.

—Bai, ondo iruditzen zait —dio gizonak.

Zur eta lur gelditu naiz.

Zahartzaroa, zaharren aroa, bizia laster amaituko dela dioen aroa. Ikusi behar dena, dagoeneko ikusia dagoela dioena. 95 urte, zenbaki potoloa.

Nire eguna iritsi da. Gaur, etorkizunerako hobekuntzak ekarriko omen dituen proiektu batek ordezkatu nau. Gaur, nire heriotzaren eguna da, hemendik aurrera moztutako zuhaitza izango naiz. Oroitzapen bat.

Neure bizitzan, ingurua eta jendea maitatzen eta laguntzen nahiz munduaz gozatzen ikasi dut. Mese-
dez, gauza bera egin ezazu zuk. Hostoak erori zaiz-
kit eta munduaz agurtu naiz: «Maite zaitut, mun-
dua!». Auzoko Zuhaitzaren partez.

BERA DA

Leire García de Vicuña Alzola

Agurain

Gogorra, leuna,
latza;
iraunkorra, luzea,
motza.

Nahiz eta ez entzun,
badauka ahotsa.
Leku guztietan da
oso zorrotza.

Bera da eta izango da
denaren ardatza;
berak kontrolatzen du
erlojuaren orratza.

Azkarregia da ikusteko,
azkarregia gozatzeko;
sentitu, konturatu, gorde
eskuetatik alde ez egiteko.

Korri, harrapatu!
Esku artetik ihes egin du;
ezin da gelditu, ezin da:
arima propioa al du?

Luzea, iraunkorra,
amaierarik gabea;
motza, laburra,
iragankorra.

Bizitza.
Denbora.

ZERGATIK?

Manex Arabolaza Palomo

Oiartzun

Zergatik dago jendea miseriaz hiltzen,
besteok dirua sobera dugunean?
Zergatik jokutzen dugu batzuekin irteerarik ez duen
tunel beltza bezain ilun, eta
besteekin egunsentia bezain argi?

Ez dut ulertzen!
Zergatik du bizitzak
hainbeste «zergatik»?

Zergatik onartzen ditugu batzuk
eta besteak ez?

Zergatik ez dugu ezer egiten, jendea
Bidasoa ibaian hiltzen ari den bitartean?

Ez dut ulertzen!
Zergatik du bizitzak
hainbeste «zergatik»?

Zergatik erabakitzen du dena
azalaren koloreak?

Zergatik hitz egin dugu hainbeste Ukrainiako gerraz,
eta ez Etiopiakoaz, edo Saharakoaz, edo Siriakoaz?

Ez dut ulertzen!
Zergatik du bizitzak
hainbeste «zergatik»?

ÈZ AL ZAIZU IRUDITZEN,
HASI BEHAR DUGULA MUNDU
HAU HOBETZEN,
ONDOAN DUGUNA ZAINTZEN,
EDOZEINI LAGUNTZEN,
GU GEU IZATEN,
HAN ETA HEMEN,
GUZTIOK BATERA
TALDE-LANA EGITEN?

HILDAKOAK

Iraia Arabolaza Ojanguren

Oiartzun

Hildakoak hor daude
gogoratzen ditugun bitartean.

Ez dugu triste jarri behar,
berak oraindik hor daudelako.

Hildakoak hor daude
maite ditugun bitartean.
Laguntza behar dugunean,
hor egongo dira.

Hildakoak hor daude
sentitzen ditugun bitartean.
Gauean, eguzkia bezain argi distiratsu bat ikusten
baduzue,
berak dira.

Hildakoak hor daude
zoriontzen ditugun bitartean.
Badakit,
maite nauzue.

Hildakoak hor daude
alaitzen ditugun bitartean.
Neuk ere maite zaituztet,
eta zuetaz gogoratzen naiz, jakizue.

Hildakoak hor daude
berez hitz egiten dugun bitartean.
Hildakoen mundua iluna da,
baina gure oroitzapenek argitzen dute.

HAITZULOAREN ALE GORRIA

Nahia Iturbe Orbegozo

Tolosa

Kareharriak bere burua hermetikotzat zuen, baina denboraren joanean, euri azidoak nahieran maiztu du: zulatu, larrutu eta harpe bilakatu. Gura hutsean geratu zizaion konponbidea izan zitekeen ekdisia. Zenbaitek honen guztiaren eragilea autodefentsa-mekanismoaren ukazioa izan dela esango du. Geldirik egoteak ere higatuko du bat.

Muga-egun jakinik gabe, zoruan eserita daramatzat ene bizitza zedarritu dezaket denbora-unitate guztiak. Gorputza eta lurra; beroaren eta orekaren arteko elkartrukea: entropia. Betidanik iruditu izan zait sumisioan harrapatuta dagoela orekaren orratza. Giroskopia oreka-egoerara itzultzen bada ere, lotzen nauten kateek ez didate joana ahalbidetzen. Agorafobia-sintomen hastapena eta desoreka.

Lantzean behin, lasterka arituko banintz bezala, eta txandakako urratsen segida egingo banu bezala, bihotzaren taupadak bizkortzen eta hatsa ahitzen hasten zaizkit. 154 gmo. Izerdi-tantek gazitasuna ematen diote aireari. Bide batez, zeinen politak diren airean lebitatzen dabilzan partikulak!

Nire aldamenekoak ere, estuntzaz lotuta dauden horiek, gogoetaren basabide tristian murgilduta daude. Huts-minaren aurkako erresistentzia da geurea: minak erantzten saiatu eta haiek gu biluztea.

Lepoko kateak ez didanez ikusmira zabalagoa aitortzen, erretinan proiektatzen zaidan kobako horma da, jaiotzez, nire errutina bakarra. Tarteka, iluntasun-eskualde gisa izenda daitezkeen itzalak begiets daitezke bertan. Gris-eskalaren aliatu sekretuak diren siluetekin batera, zurrumurru errimea entzuten da.

Paisaia bakan horren monotoniak itzalen inguruan eztabaidatzeko aukera ematen digu; haien aldaketen eta mugimenduen inguruan espekulatzekoa. Norbanako bakoitzaren irudimen-munduak harritzen nau maiz. Niretzat x dena, bestearentzat z da; eta hirugarrenarentzat, aldiz, a da. Segidak horrela jarraitzen du, ezezagun-gatibuen erlazioa amaitzen den arte.

Gauaren inguruko mintzo poetikoen eta ondokoen loaren ingurukoak izan behar zuten hurrengo lerroek. Ez diet aipamenaz gain beste ezer eskainiko; izan ere, kateetatik askatzea lortu dut.

Astiro zutitzean, min eman didate artikulazioek. Artrosiaren lehen abisua izan da. Zurruna bezain hauskorra naiz; zure amak inoiz gutxitan erabiliko duela jakin arren, mimo handiz gordetako baxera bezalakoa.

Pauso leunez higitzeari ekin diot. Habitatzen nuen espazioari perspektiba gehiagotatik begiratzeari, estekatuta geunden arrokaz haratagoko bi-dea dagoela jabetu naiz. Bizitza osoaren zentzua

hankaz gora joan zait, gure ustezko errealitatea ez baitzen horren errealista.

Pixka bat aurrerago joan, eta harri tartean ezkutu naiz. Etengabeko mugimendua duen argi gorritza dago bidearen ertzean. Zinez, hipnotizatzailea da haren edertasuna. Antzematea lortu ez dudan zer-bait bota du gizon batek bertara. Suntsitu egin da, eta airea estali duen atmosfera moduko bat eratu du. Begiak igurztera behartu nau beranduago kea zela jakingo nuenak. Arnasa mehatxatu dit, baina ez itotzeko lain.

Bertara jaurtitako guztia erreko balu, estetikoia izateaz gain, praktikoa litzateke. Nik subkontzientea iraitziko nioke, haizeak daramatzen errauts beltza bilakatu dadin. Hauts beltzezko orbana beste norbaitengan barneratzean, horrek bai, arnasa ezeztatu diezaion. Niri, behintzat, ez zait erruduntasun-hautsik geratuko.

Gizon gehiago etorri, eta bakoitzak lurrean pausatutako objektu bana hartu du. Gizakiaren asmakizunik behinenaren aurrean jarri, eta txotxongiloak bailiran mugitu dituzte, presook ikusten genuen horman islatuz. Ateratako soinuek oihartzuna eragin dute koban.

Ahoa erabat idortu zait, listua tragatzea ezin izateraino. Ez nekien egundaino gorpuzteek gainezka egin zezaketenik.

Artean, pentsamenduaren logikaren arabera ebazten nuen guztia. Egiaren bidez, arrazoibidea bilatzen nuen. Hala, egiatzat genituen itzalak, gure errealitatea bihurtu genituen. Orain, ordea, bistakoa da ezjakintasunean eta engainuan bizi izan garela. Egiazki, hartara kondenatuta geunden.

Arian-arian, bide aldapatsutik gora joan naiz gizonen ez ikusteko moduan. Malkar batean nagoe-la, eskuan ebaki bat egin dut. Apenas ohartu naiz, utzitako arrastoa sumatu dudana arte. Uste dut, odolaz gain, antolatuta neukan ordena pertsonal apur hori ere isuri dudala.

Koherentzia guztiak desbideratuta, neure burua automatizatzen hartzen hasia nago dagoeneko. Literalki eta figuratiboki, galduta. Noizbait entzuna nuen: «Nora doan ez dakiena beste nonbaitera ailegatuko omen da». Galduta dagoena ere bai? Nora doa, baina, galdutakoa?

Zilegi da haitzuloa irteerarik gabeko *scaperooma* izatea. Eskura dudana denboraren oren bat ingurukoa izan beharrean, bizitzak beste izatea. Pistak aurkitzen joatea, loturak sortzea, harik eta, etsi eta bertan usteldu arte. Dena den, irteeradun *scaperooma* taxutu du hasieran aterabidetzat hartu dudana eta, gero, ihesbide bilakatu den pareko zuloak. Norabidegabe; beraz, honaino hel daiteke.

Itsumustuan, gama-izpiek bortizkeriaz kolpatu dizkirate ilunpera egokitutako begiak. Dosi metagarri altuek DNAREN aldaketa desafiatu ei dute. Hori ere gezurra izango delakoan nago. Aurpegia zimurtu eta, apika, argira ohitu zait ikusmena. Hai-ze-ufadak ileak harrotu dizkit. Usaina desberdina da. Zarata ere bai. Nahi bestean mugi naiteke. Askatasun gosegarria da.

Ibilera leunari berriro heltzean, kanpoko beste errealitate bat hauteman dut. Erretinan lehen aldiz proiektatu zaizkit: arbolak, errekek, zerua, gizakiak... Lehenik, horien itzalak; gero, horien

uretako islak; eta ondoren, aurrez aurre, zuzenean ikusi ditut.

Kobako gris-tonalitateen gaindi, polikromiaren berri jakitean, apurka-apurka, zirkulu kromatikoa osatzen hasi naiz: magenta, horia, ziana... Kolo-reak ez dira denbora orotan berdin hautematen. Eguerdiak zein ilunaurreak, esaterako, baldintzatu dezakete hori. Niri bost. Leiar optikoak jantzita ere, daltoniko izaten jarraituko dut.

Azken batez, eguzkiari begietara so egiteko adorea izan dut; etorkizunean, «Ongiaren ideia» izendatuko duten ekintza. Une honetan izozkia naiz. Eguzkiak edota sentimendu-gaindosiak urtzen duen izozkia.

Mundu hau ederragoa, perfektuagoa, zuzenagoa eta errealistagoa iruditu zait. Gizonek islatutako objektuen inspiraziozkoa-edo. Egoismo etikoa baztertzeke asmoz, haitzulora itzultzea erabaki dut. Ki-deak kateetatik askatu eta mugiarazi nahi nituzke. Odol-arrastoei segika mundu materialaren berri izan dezaten; eta instant batean, eguzkiaren berotasunak gorputzeko tenperatura bost gradu igo diezaien.

Makurtu, eta zulotik sartu naiz barrenera. Segituan, ia ahuspez erori naiz, harri batekin estropezu eginda. Beldur nintzen ez ote nituen lagunak bilatuko, baina jada sikatutako odol-tanten lorratzek, Hanselen eta Gretelen moduan, gidatu naute.

Gizonak joanak dira dagoeneko. Lurrean atsedena hartzen jarri dituzte objektuak. Azkenaldian ez bezala, identifikatzeko gai naizenak. Lehengo sua, txingarra da orain. Lehengo kea, biriken apopiloa

da orain. Denboraren dekadentziaren biktima xumeak.

Emandako pauso guztiak desegin ditut, eta ki-deak lotuta dauden harrira heldu naiz. Aurrean duten paretari begira daude. Haien gogoak imaginaziozko erbestean jarraituko du, segur aski.

Jazotako guztia esaten ez badiet, eserita eta gezurak onartzen jarraitu beharko dugu. Isilik egotea suntsipena saihesteko metodoa balitz, metodoak berak suntsituko ninduke. Alabaina, zenbaterainokoa da komenigarria gauzen berri izatea?

Egia: jakingura, iraungitze-data igarotakoan ase nahi izaten dugu sarri. Beste egia bat: koldarkeria ere jakingura asetzeko aukeretako bat da.

Zaila izaten da norberaren baitan errefuxiatutako urduritasuna kontrolatzea. Horregatik, hitzez hitz, diskurtso argi eta zehatza osatu dut. Lehen hitza da zailena beti. Kideak agurtzearekin batera, hartutako lan guztia pikutara joan da, inprobisaziora jo baitut. Uneko asmamena izan bada ere, ongi moldatu naiz.

Azaldu diet su aurrean, gizon batzuek mugiarazitako objektuen ondorio direla sortzez ikusi ditugun itzalak. Objektu horiek kobazulotik kanpo dauden gauzetan oinarrituta daudela, irudia ez dela beti laua... Eguzkiaren nolakotasunen berri ere eman diet.

Barrenak hustuta, haien erantzunaren zain geratu naiz. Berriro ere taupadak azkartu zaizkit: 156 gmo. Elkarri begiratu diote. 159 gmo. Erabateko isiltasuna. 160 gmo. Bi munduren arteko guda apokaliptikoa dirudi. 161 gmo. Haien barre ozenek isiltasuna apurtu dute.

Badakit, leizean sartzean, eguzkiaren argitara ohitutako begiak itsutu zaizkidala; eta badakit trakets bihurtu naizela iluntasunean; eta badakit gizakia ezezagunaren beldur dela; eta badakit inork ez didala sinetsi; eta badakit barre egitea terapeutikoa dela.

Presoek adimen hutsala izango dute, iruzurra-
ren burbuilan jarraituz gero. Esperientzia eta per-
tzezio sensorialaren bidez, ezagutza eta gaita-
sunak bereganatu ditzakete, baina eserita egotea
errazagoa da. *Tabula rasa* egoeran diraute egun; ni,
berriz, eklektiko bihurtu naiz.

Kateak askatu, eta nik egindako prozesu bera egi-
naraziko diedala erabaki dut. Era horretan, «arbel
hutsa» zirriborroz beteko zaie, esperientziak eta
zentzumenek arreta handiz trazatutako zirrimarra
abstraktuetan.

Kateak askatzearekin batera, jarraitzeko esan
diet. Ahapeka hitz eginez iragan dute bidaiia erdia.
Halako batean, lurrera jauzi naiz. 48 taupada mi-
nutuko. Gutxi, oso gutxi da hori. Ez dakit zenbat
denboran egon naizen etzanda. Burua umel sentitu
dut, baina ez da izerdia. Odola da. Burura jaurti-
tako harri batek jariatzen didan odola.

Gizakia egiara heltzean, hiltzera zigortua izan
da historian zehar. Baieztutakoa zalantzan jartzea
praktika galbidetsu nahiz arriskutsua da. Ezagutara-
zi nahi izan digutena dugu egiazat. Gizonek gure-
tzat hala izatea nahi zutena bilakatu dugu gure egia.

Ezagutza berriak geureganatzea onartzen da, bai-
na ezagut daitekeen hori xehe-xehe neurtuta dago.
Gizakiak kontrolagarria izan behar du, bere kabuz

pentsatzeko ezgauza. Horregatik, baten bat egiara heltzen bada, hil egin behar du. Lan hori ez dute gizonak hartuko; izan ere, bere kideek erailko dute.

Presoak bizitzaren galeraren errudun izateko gai dira; are gehiago, izateko prest daude. Bakoitzak harri bana hartu, eta nire inguruan korro bat osatu dute. Herio-usain sarkorra dario harpeari.

Justizia poetikoak zutiaraziko ninduen, eta amaiera neure garaipena zatekeen. Gaiztoek merezitako zigorra jasoko zuten eta handik aurrerakoa zoriontasuna izango zen. Terapeutikoak diren algara horietaz gainezkatutako zoriontasuna.

Justizia hark soilik berrituko lidake bizirik irauteko gai naizen ustea, baina ez da horrela gertatuko.

Banan-banan jaurti dizkidate harriak. Indar handiz kolpatu naute. Odola eta negar-malkoak nahasi dira kareharriaren gainean. Nahasketa hori ez da euri azidoa bezain arriskutsua. Hil naizela jabetu diren arren, bakoitzak beste harri bana bota dit. Suaz gain, harriek ere suntsi dezakete bat.

Atzera, betiko tokira joateko bidea hartu dute. Bakoitza bere tokian jesarri, eta elkarri kateak lotu dizkiote. Ezertxo ere gertatu izan ez balitz bezala, berriro ere gizonak etortzen direnean, itzalen itxuraz eztabaidatzen jarraituko dute.

Egunen batean, baliteke nor edo nor kateetatik askatu, eta bidea zeharkatzeko kuraia izatea. Behin mundu sentigarria ezagututa eta egoismo etikoari muzin eginda, bertan geratuko da, eta eguzkiaren azpian eguzki-panelak jarriko ditu.

Hau guztia gertatzen bada, besteren batek engaina dezan onartuko du.

ERORKETA ASKEAN

Eneko García Muñoz

Zumarraga

Egun hartan Parisko arratoi famatuek behatzetan eragindako kilimek esnatu ninduten, Saint-Jacques dorrea dagoen parkeko metro-irteeran, hiri horrek eman didan bero bakarra jasotzen, txabola bat osatzen zuten kartoiz inguratuta. Ea nola iritsi nintzen egoera horretara? Hori bai galdera ona! Batez ere kontuan eduki izanez gero, hiri erraldoi horretako Vendôme plazako bitxi-denda ospetsu bateko zain-tzailea nintzela.

Duela bederatzi aste, urri bukaeran, gertatu zen dena, urteko garai hain polita den horretan: orbelak, kolore-tonalidade beroak, tenperaturen behe-rakada... Nire egun guztiak berdinak ziren, den-dara iritsi, han zortzi orduan jarraian egon, etxera joan... Jendearentzat ikusezina ote nintzen irudi-pena nuen, gainera denda horietara joaten den jendea diruduna denez, beno, badakizue nolakoak diren aberatsak, ez agurrik, ez irribarrerik: ikusezi-na. Nazkatuta nengoen jada egoera horretaz eta erabaki bat hartu nuen: lana utzi eta nire bitxi-den-da irekitzea. Plana oso ona zen, baina tartean arazo bat zegoen: diru-falta. Ideia bat izan nuen, oso

arriskutsua, baina oso ondo ateratzea ere posible zen. Ezin nuen lana utzi, behar nuen diru hori lortu arte. Orduan, astebetean itxaron nuen soldata jasotzeko, eta nuen diru guztiarekin abiatu nintzen toki hartara.

Han nengoen, beti bezala. Betiko lekuan, Pariseko apostu-areto batean, diru pixka bat egiteko prest eta ahal baldin bazen, norbait engainatzeko, azken batean horixe zen gure lana. Orduan, lokalean sartzen ikusi nuen gizon hori, beltza zen, altua eta beldurgarriro indartsua, baina haren aurpegiak ez zuen berdina erakusten, lotsa ikusten zitzaion; orduantxe pentsatu nuen lehenengo aldia zuela apostuen munduan. Oso ezberdina zen hura normalean gure erakundeak kudeatutako-lokaletan sartzen zen jendearen aldean, gehienak dirudunak, eta beren buruaz oso seguruak; oso inozoak ez baziren, zaila zen negozioa egitea, eta guk azken batean hori nahi genuen: jendea apustu-tuetan dirurik gabe gelditzea eta, apustu egiten jarraitu behar zutenez, dirua irabaziko zuten esperantzan geuri eskatzea, itzuli ahalko zuten ametsen.

Leku horretara sartu ondoren, apustu egiten hasi nintzen, mota guztietako apostuak: makinak, poker-rra, erruleta... Hasieran ez zitzaidan gaizki joan, eta diru asko irabazi nuen, baina diru-goseak barrua hartu zidan eta pentsatu nuen, han nengoela, diru gehiago izateak ez zidala, bada, kalterik egingo, baina horixe izan zen nire azkena. Geroz eta gehiago galtzen hasi nintzen, ia ezer gabe gelditu arte. Ez nekien zer egin...

Han zegoen, dirua bota eta bota, barra-barra. Partida bat galtzen zuen bakoitzean ikusten nuen nola handitzen zen bere desesperazioa, eta ez zekien zer egin; seguraski di-

rurik gabe zegoen, eta seguraski hura bezalako pertsona bat gure lokaletara etortzeak diru-beharra zuela esan nahi zuen. Orduantxe erabaki nuen bera zela nire helburua, eta gerturatzea pentsatu nuen.

Etsita nengoen, dirurik gabe, zer egin nezakeen? Alferrik ari nintzen. Lanera itzuli beharko nuke. Betetzen ez ninduen lanera. Jendeak mespretxatzen ninduen lanera. Orain ikusita, ez zen hain bizitza txarra. Baina han negoen, banku batean eserita, eta gizon baxu bat hurbildu zitzaidan. Zizarea ematen zuen bibotetxo penagarria zuen, baina goitik behe-ra oso dotore jantzita zegoen: hiru piezako jantzi gorri bat, larruzko zapata marroi batzuk eta jantziaren kolore berdineko kapela. Bi begi txikiekin begiratu zidan, baina horiek zerbait berezia zuten, distira bat... Sentitu nuen, nik hitz egin baino lehen neure barrua zeharkatu zutela alde batetik bestera eta gizon horrek neure burua nik neuk baino gehiago ezagutzen zuela.

Ondoan eseri eta konfiantza erakusten saiatu nintzen. Egia esanda, gizonaren gorpuzkerak beldurtu egiten ninduen: 1,90 metro inguru, 90 kilo; beste aldean ni, 1,70 metro eta 65 kilo. Ez nintzen ezer, baina ni azkarragoa nintzenez banekien konfiantza erakusten banuen ez zuela nire aurka ezer egiterik. Begirada lehorra egin zidan, eta ez zuenez ezer esaten, nire estrategia hastea erabaki nuen:

—Kaixo, lagun! —hasi nintzen.

—Bai, kaixo! —erantzun zidan.

—Zer moduz?

—Pfff...!

—Ez al doa ondo negozioa?

—Egia esanda, ez oso ondo...

—Diru asko galdu duzu?

—Bai —hogei euro atera zituen poltsikotik—, hau besterik ez zait gelditu.

—Beno, azkenean dirua baino ez da. Zergatik hainbeste desesperazioa?

— Bitxi-denda batean lan egiten dut eta diru hau berreskura dezaket, baina nire negozioa irekitzeko dirua aurreztu dut, hona ekarri eta gehiago lortzeko... Ez da oso ondo atera!

Eta han, inondik ere ezagutzen ez nuen gizon baten aurrean eta Paris erdiko apostu-etxe batean, nire bizitzaren gorabeherak kontatu nituen: hiri honetara iristean Senegaletik txikia nintzenean, gurasoak galdu nituen; nola kostatu zitzaidan munduan leku bat egitea, borroka-arteak ikasi behar izan nituen; azkenean nola lortu nuen segurtasun-enpresa baten jabea neugan fijatzea eta bitxi-denda batera lan egitera bidaltzea.

—Hori bai egoera tristea zurea! —ulerkor.

—Beno, badago ni baino okerrago dagoen jendea, baina ilusioa nuen nire negozioa irekitzeko...

—Zer duzu izena?

—Ousmane.

—Ados. Fabio, nik.

—Urte askotarako, Fabio!

—Neure ustez, ametsei eutsi egin behar diezu. Zu bezelako pertsonak beharrezkoak dira gure gizarterako, gauzak argi dituen jendea, negozio bat aurrera eramateko prest dauden ekintzaileak.

—Hori dena oso ondo dago, baina ez daukat baliabiderik, eta nituen guztiak oraintxe bertan galdu ditut!

—Lasai, motel! Horretan lagun diezazuket.

—Bai, gero? Nola, baina, esatea baldin badago?

Han zegoen nire planaren gakoa praktikan jartzeko momentua. Jakin-minagatik sarean sartu den arraina neukan, harrapatuta.

—*Jatorra eta pertsona apala zarela iruditu zait, eta prest nago zurekin tratu batera iristera.*

—*Tratu bat? Kontatu gehiago, mesedez.*

—*Oso erraza da, nik dirua utziko dizut eta zuk baldintza batzuk betetzen badituzu, ez dugu arazorik izango.*

—*Ze motatako baldintzak?*

—*Jarrai iezadazu.*

Banindoan haren atzetik. Apostu-etxearen bukaeraren zegoen gela batera eramán ninduen. Iluna zen, eta idazmahai batean zegoen lanpara batek besterik ez zuen argitzen. Gela karratua zen, eta alboko paretetan liburuz betetako apalategiak zeuden. Idazmahaiaren atzean gizon baten koadro bat zintzilik. Nire «laguna» eseri zen, eta beste aldean zuen eserlekuan esertzeko esan zidan.

—Pozten naiz tratu batera irits gaitezkeela ikusteaz —adierazi zidan.

—Beno, ikusi beharko dugu ea zeintzuk diren baldintzak.

Hitz horiek entzutean aurpegia ilundu zitzaion. Nonbait, ez zitzaion hori gustatu.

—Ez duzu orain atzera egingo, ezta?

—Esan duzu zerbait proposatuko zenidala. Bota ezazu.

—Kar, kar, kar! Ados, ados. Gauzak argi dituzula ikusten dut.

—Mosedez, presa daukat.

—Hauxe nire tratua: nik behar duzun dirua emango dizut, eta zuk...

—Nik zer?

—Zuk astero irabazten duzunaren herena eman eta nik bidaltzen dizkizudan enkargu batzuk egin beharko dituzu.

—Zure esklaboa izatea nahi duzu?

—Ez. Esklaboa ez; noizean behin, agian, dei bat jasoko duzu, emango dizudan mugikor batean, leku batzuetara joateko, eta nik enkarguren bat bidaliko dizut.

Soinean zuen jantzi gorriarekin eta bere jarrerarekin, gero eta deabruaren antz handiagoa hartzen nion.

Harrapatuta zegoen, baietz bakarrik esan zezakeen. Dena ondo zihoan, nik kalkulatu bezala.

—Zer gertatuko da, onartzen ez baldin badut?

—Ezer ez, lasai —eta hori esaten nuen bitartean botoi bati eman nion eta, bi metroko altuera zuten bi morroi azaldu ziren eta bakoitza atearen alde banatan jarri zen. Jakak ireki zituzten, armak agerian uzteko.

—Ematen du ez dudala beste irtenbiderik, ez?

—Uste dut zauden egoera ekonomikoarengatik ez, lagun —eta leunki tratua ofizializatzen zuen papera hurbildu nion.

Ousmanek papera sinatu eta etsipen-aurpegia jarri zuen.

—Eta ordaintzen ez badut aste bukaeran?

—Espero dut hala ez izatea, baina kontrako kasuan, negozioa kenduko dizugu.

—Ufa! Orduan, ordaindu ezean, negozioa eman beharko dizuet?

—*Bai. Lokala geuk erosiko dugu eta geuk edukiko ditugu paperak ere. Ordaintzen ez baduzu, kalera joango zara. Nirekin duzun zorra ordaintzen duzunean, zeurea izango da denda.*

—*Ados.*

—*Lokala prest dugunean dei bat jasoko duzu telefono honetara —eta sakelako bat eman nion.*

—*Hemen, diozu?*

—*Bai. Gainera hor enkarguak egiteko deiak ere jasoko dituzu. Geolokalizatuta dago, ez egin ezer arrarorik. Zor-te on! —altxatu, eskua eman eta morroiei atea irekitzeko adierazi nien.*

—*Agur, bai.*

Negozio txarra egin nuela pentsatzen atera nintzen apostu-etxetik. Egia esanda, ni bakarrik sartu nintzen arratoi-tranpan. Beno, serio egiten banuen lan, posible nuen urtebetean zorra kitatu eta nire denda propioa edukitzea. Ez nintzen kikilduko.

Tratua egin ondoren, lana utzi nuen eta astebe-tean egon nintzen dei hori itxaroten. Azkenean, egun batean, eman zidaten sakelakoan hain luzaz itxarondako deia jaso nuen.

—*Bai? Fabio?*

—*Ousmane?*

—*Bai, neu naiz.*

—*Denda prest dago zu bihar bertan lan egitera sartzeko. Aste-hasiera bakoitzean material berria edukiko duzu saltzeko.*

—*Ados.*

—*Bihar gizon batek zure etxeko atean itxarongo dizu. Dendaraino eramango zaitu eta han zaudete-la giltzak emango dizkizu.*

—Ondo.

—Larunbatetan norbait joango da diruaren bila. Badakizu zer gertatuko den ordaintzen ez baduzu, ezta?

—Bai, bai...

—Beno, agur, eta egon sakelakoari adi.

—Agur!

Dei horretan oso urduri jarri nintzen. Amaitua zen jada hasierako ahots-tonu jatorra. Orain guztiz beraren menpe nengoen. Haren jokoan sartu nintzen eta ateratzeko nuen modu bakarra jarritako baldintzak betetzea zen.

Hurrengo egunean dendara joan nintzen gizon altu batekin eta hantxe utzi ninduen. Denda huts-hutsean, bakarrik gelditu nintzen. Bitxi guztiei begira. Ezin nuen sinistu han egotea ni. Harrigarria iruditu zitzaidan lehenengo egunean sartu zen jende-kopurua. Horrek aurpegia piztu zidan. Horrela jarraitzen banuen, pentsatu nuen baino lehenago ordainduko nuen zorra.

Dena zihoan ondo. Entzunda nuen denda hori negozio ona zela, eta horrek diru asko esan nahi zuen. Aste pare batean itxaron nuen lehen enkargua bidaltzeko. Oso sinplea zen: pakete bat hartu eta nire morroi bati ematea. Hobe zen horrek ez jakitea zer zegoen poltsan.

Aste batzuen ondoren, enkargu garrantzitsuena iritsi zen. Gizon bat bidaliko nuen dirudun baten etxera bitxi asko lapurtzera, eta kalezulo batean itxaroteko esango nion. Berehala, neuk bidalita Ousmane iritsiko zen, eta gizon hark neure morroiari bitxiak zituen motxila emango zion, horrek aste-hasieran dendan jarri eta saltzeko. Ez zen hau egiten nuen lehenengo aldia, baina Ousmane bi-

dali nuen, polizia nire morroien atzetik zebilela uste nuelako. Harekin hitz egin nuen eta plan guztia azaldu nion. Dena gaizki joan eta harrapatzen bazuten, neu geldituko nintzen dendarekin.

Fabiorekin eduki nuen deiaren ondoren ez nekien zer pentsatu. Zertarako behar zuen ni Pariseko kalezulo batera gauetz joatea, ostiral batean, guztiz beltzez jantzita? Geroago ulertu nuen, baina hori izan zen neure «erorketa askearen» hasiera.

Hark esandako guztia egin nuen, eta esandako orduan; izentatutako lekura iritsi nintzen. Han, zain, beltzez jantzitako gizon bat zegoen. Motxila pisutsu bat eman zidan eta suteetarako eskaileretatik ondoko etxearen lehenengo pisura sartu zen. Kalezulutik atera eta bost metroan ibili ondoren, ahots bat entzun nuen atzean:

—Geldi!

Ahots lodi hori entzutean buelta eman eta hiru polizia ikusi nituen, armak eskuetan neuri apuntatzen.

—Eskuak gora!

Esan zidatena egin nuen, eta hortik aurrera ez dut ezer gogoratzen, uste dut *shock* egoeran sartu nintzela. Gogoratzen dudan hurrengo gauza neure burua polizia-etxean ikustea da, galdeketa-gelan, kalezuloan oihukatu zidan poliziaren aurrean.

—Esan liteke hemen bukatuko direla zure negozioak —esan zidan.

—Baina, zergatik? Zer egin dut, ba, nik? Langile zintzoa naiz.

—Horixe! Langile zintzoa, bai! Atzo bitxiak ere «zintzoki» lapurtu zenituen, ezta?

—Ze bitxi?

—Motxila barrukoak.

—Baina, baina, horiek ez ditut nireak!

—Zer, lagun bati gordetakoak-edo?

—Ez, gizon batek enkargatu zidan leku hartara joateko, eta han beste batek motxila hori eman zidan. Nik ez nekien ezer ere!

—Zutaz aparte ez zegoen, ba, inor kalean...

—Baina... Beno, frogatu dezaket norbaitek enkargatu zidala motxila jasotzea. Atera nire poltsikoan dagoen sakelakoa eta deitu kontaktuetan dagoen telefono-zenbaki bakarrari.

Deitu egin zuen, baina zera entzun zen: «zenbaki hori ez da existitzen». Orduantxe jakin nuen akabo zela nirea.

—Aste batzuk daramatzagu zure atzetik, konturatuak ginen zure bitxi-dendan saltzen dituzun bitxiak lapurtuak direla, baina zeu harrapatzeko aukeraren bila ari ginen.

—Baina bitxi-denda ez da nirea!

—Paperetan zeure izena ageri da erantzule bakar gisa.

Ikusi nuen ezin nuela ezer egin, Fabiok dena oso ondo kalkulatuta zeukan. Seguraski izena ere ez zuen Fabio izango...

—Bi aukera daukazu: kartzelan sartu edo fidantza ordaindu. Badaukazu dirurik?

—Bai, badaukat.

Horrela, nuen diru guztia, aste osoan lortutakoa barne, poliziari eman nion. Banekien zer esan nahi zuen horrek: dendarik gabe geratuko nintzen, eta orduan pisua uzteko beharra, ordaintzeko dirua ez izateagatik.

Gau horretan dendan egin nuen lo, eta hurrengo goizean han azaldu zen Fabio. Hiru morroirekin lagunduta.

—Uste dut badakizula zer tokatzen den...

—Ondo pasatu al duzu niri burla egiten?

—Ez jarri horrela, Ousmane, horrelakoa da-eta bizitza.

—Benetan?

—Tira! Ikusten dut ez duzula hitz egin nahi...
Ekarri giltzak!

—Ezta...! Kendu egin beharko dizkidazu!

—Horixe! Kenduizkiozue giltzok!!!

Borrokan hasi nintzen morroiekin. Haiek hiru, ni bat. Kontuak atera! Kanean bukatu nuen, minik gabeko gorputz atalik ez nuela.

—Agur, Ousmane!

Hori esan eta atea itxi zuen, nire amets eta esperantzei ere atea itxiz.

Iritsi gara orain nagoen momentura. Bi aste daramatzat kanean eta oraingo ez du ematen egoera aldatuko denik. Orain konturatu naiz, nuenarekin konformatu ez eta apostu-etxe horretara joatea izan zela nire amaiera. Krudela da bizitza hiri handietan! Norbait jan egin behar, bestek norbera jan ez dezan.

OHIKO GOIZA

Unai Mendizabal Lekuona

Zegama

Danba! Atea giltzaz itxi eta arineketan jaitsi ditu eskailerak. Laugarren solairuan bizi da, eta kalera irten denerako, nabaritu du jada ez dituela hogeituro urte. Hala ere, ez du abiadura mantsotu metroko eskaileretatik barrena; erlojuari begiratu dio behin eta berrero, horrek denbora moteldu eta lanera garaiz iritsiko dela ziurtatuko balu bezala. Txartelaz tornua ireki, zaintza-lanetan dagoen langileari «egun on!» azkar batez kasu egin eta iritsi da trenaren geltokira.

«Kaka zaharra!», esan du ahopean, hamabost minutuz itxaron beharko duela adierazi du-eta sabaitik zintzilik dagoen pantailak. Paretaren kontra jarri da trenaren zain, aurrean duen iragarkian begirada finkatuta, buruan ezer zehatzik erabili barik: besterik gabe, egonean. Halako batean, oroitu da urte-hasieran otu zitzaion egitasmo hartaz; bai, abagune ezin hobea dauka egunerokoa idazten hasteko. Laneko motxilatik koaderno eta boligrafo ateratzen hasi orduko, ordea, tuneletik trenaren argia eta zarata nabaritu ditu. Ibilbidearen hasiera du trenak; eta beraz, hutsik dauden eserleku ugarietako bat hautatu eta idazteari ekin dio:

«2018ko otsailaren 24a».

Horixe izan da lehen bi geldialdian idatzi duen bakarra: ez daki nola hasi. Tira, azken finean goizeko zazpi eta erdiak dira eta logura da... Ez! Zerbait idatzi beharrean dago, bestela ez da sekula hasiko; beti aurkitzen du aitzakiaren bat eginbeharra atzeratzeko. Besterik bururatu ez eta inguruan duena deskribatzen hasi da:

«Gaur ere, ia hutsik dago bagoia. Beti bezala, atzeko atearen ondoko bakarkako eserlekuan eserita nago: eskuinetara, kanpoaldea ikus dezaket leihotik; ezkerretara, atetik sartzen diren bidaiarien aurpegi nekatuak miatu; eta aurrean, bagoi barruan gertatzen diren xehetasun guztiak zehatz-mehatz behatu. Oraingoan, bi pertsona soilik daude ibilgailuan. Lehena, hainbat eserleku inor gabe egon arren, zutik doa atearen ondoko barrari tinko eutsita. Behin baino gehiagotan suertatu izan zait berekin batera bidaiatzea, eta inoiz ere eserita ez joateko ohitura xelebrea duela dirudi, batek daki zergatik! Laneko arropa zahar zikinak eta ukabil bueltan kiribildutako txaleko horia kontuan izanda, eraikuntzan-edo diharduela esango nuke. Bigarrenak ere zikinak ditu arropak, baina oso bestelako eran. Gaua luzatu zaiola ematen du —egia esanda, gauak sarritan luzatzen zaizkiola dirudi—, alkoholak eragindako lozorro sakonean baitoa, aurrealdeko bi eser-tokiren gainean hala moduz etzanda. Nolakoa izango ote zen umetan gizon utzi hori? Egun-

go haurtxoak bezain polit eta maitatua, seguraski, familiako guztien arreta bereganatzen duen horietakoa. Nola iritsi da oraingo piura hori izatera? Edo agian, txiki-txikitatik edanarekin arazoak zituzten gurasoek hezi zuten... Ez dago jakiterik».

Goibel jartzen hasia da, eta beste zerbaiti buruz pentsatzera behartu du bere burua. Izan ere, tentel hutsa da: zertan ari da horrelako gezurrezko ideiak idazten? Lotsa ematen dio idatzitakoaz pentsatze hutsak. Ondorengo geltokian gelditu da trena, eta ama-alabak igo dira.

«Bost bat urteko neskatua eta haren ama sartu dira hurrena. Berrogei urte beteak izango dituen emakumeak ongi begiratu du alde batera eta bestera, eta «loti ederrari» begirada mesfidatia eskaini ostean, atzeko aldean esertzea ebatzi du, nigandik bi errenkadara.

—Ama, min egingo al didate? —umeak, urduri.

—Ez, odol-analisia besterik ez da, esan dizut atximurkada txiki baten modukoa dela —amak, ahalik eta isilen, liburutegian baleude bezala.

—Ama, ama, eta zer du hor lo doan gizon horrek? Agian ongi etorriko litzaioke analisia berari ere —iradoki du neskatilak, barre txikia ezkutatu ezin izan duen langileak ere entzuteko moduan.

—Mesedez, e! Isil zaitetz behingoz —ihardetsi dio, zakar, alabaren hitzak denek entzun dituztela ohartu da eta.

Ondorioz, isiltasuna da berriro nagusi, trenaren triki-traka hots baxuak bakarrik eteten du. Haurrak atzera begiratu du, begirada neugan finko jarritz, “zergatik ari ote da heldu xelebren hori koadernoan idazten?”, pentsatuko balu bezala. “Oraindik eskolan al dabil, akaso, letra xehez idaztea ikasi ezinik?”. Ez dio, ordea, itaunik egin amari oraingo honetan.

Trena lurrazalera irtetearekin batera, etxebizitza modernoak ageri dira trenbidearen bi aldeetan, amaitu gabeak batzuk. Hurrengo geltokira heltzean, langileak txaleko horia jantzi eta jaitsi egin da; haren ordeztu lagun ugari sartu da».

Jadanik utzi ditu alde batera lotsa eta zalantzak, sartu direnei idazle bohemioa begitandu zaientak, erabat murgilduta dago egunerokoan. Adin eta itxura guztietako gizasemeek hartu dituzte treneko jesarlekuak, iskanbilaren ondorioz gizon mozkorra ere esnatuz. Egunerokoan bidaiarien xehetasun guztiak ezin argiago adierazita geratu dira, entziklopedia balitz bezala:

«Atearen ondoan dago eserita ikasle gaztea: esku batean, *Giza gorputzeko ehunak* dioen liburuxka; bestean, Red Bull edabea; aurpegian, masusten koloreko begi-zuloak. Unibertsitateko ikaslea, ez dago zalantzarik. Alboan, berriz, hirurogei urtetik gorako moja, gurutzea eskuan duela. Zeharka begiratzen dio gazteari; izan ere, hain du itxura tamalgarria hark, ezen mojak beraren alde otoi egiteko zorian dagoela dirudien.

Gainontzeko eserlekuetan, atentziorik ematen ez duten pertsonak daude: batzuk, bakar-ka, gaueko txanda egin ostean ospitaletik etxera bidean doan erizain gaztea, esaterako; beste batzuk, taldean, institutura doan mutil-kuadrilla bezala. Azken horiek nork bere mugikorrari itsatsita pasatzen dute denbora gehiena, tarteka besteei bideoren bat-edo erakutsiz, barre-algaraka.

Bada, ordea, asiar etniako emakume edadetu bat, lehengo langileak eusten zion barrari eutsita hori ere. Telebistan agertzen diren Tokyoko edota Beijingo biztanleek bezala, maskara darama ahoa estaliz. Dirudienez, ez naiz ohar-tu den bakarra, metro eskasera eserita dagoen agure zaharrak ere nolabaiteko harriduraz begiratzen baitio, odol-analisia egitera zihoan neskak gizon mozkorrari begiratzen zion gisa, begien aurrean duena ulertzea kostatuko balitzaio bezala. Aitortzen dut neuk ere ulergaitza deritzodala maskara-janzte horri: gaixotzeko beldurra izango al du? Edo airearen kalitate txarrak bultzatzen ote du horrela jokatzera? Beharbada, ohitura soila ere izan liteke: jaioterrian egunero erabiltzen zuen maskara gabe ibiltzea desatsegina gerta dakioke.

Hiriaren erdigunera heltzen ari garen honetan, gizon mozkorra bat-batean altxatu da, begi urdin urtsuak zabal-zabal irekita.

—Entzun, guztiok! —hasi da ozen, bidaiarien arreta bereganatuz istant batez. Alabaina, gehienek, haren itxura zarpaila ikustean, hiri-

tarrek hain berezkoa duten jarrera hartu dute segundo gutxian: leihotik kanpora edo puntu batera finko begiratzea, ezer gertatzen ari ez den plantak eginez. Nik neuk ere, arlotearen existentziaz jabetu ez banintz bezala jarraitu dut idazten, baina tentagarriegia da ikuskizuna eta, belarria zorroztu dut.

—Badatoz, badatoz... Gureak egin du! 1293. urtean aipatu zuen Nepalgo fraideak...

—Ama, zer esan zuen, ba, fraide horrek? —dirudienez, ez du erabat ulertu isilik egotearen kontua neskatilak. Oraingoan ere, behar baino altuago ari da solasean, eta hiritarren harrizko aurpegi zurrinak deserosotasun-pitzadurek bete dituzte; zer esanik ez amarenak.

—Isilik egoteko, ba, umea! —amak, gorrituta, errietan egin daitekeen tonu okerreanean, amorrus betetako xuxurlaren tonuan, alegia. Gurasoaren umore txarrak ikaratuta, zintzo-demonio obeditu du agindua!, eta leihotik begira jarri da. Aitzitik, lehen maskaradun kanpotarrari begiratzen zion agureak begirada lausoz mozkorraren hitzaldia aditu du, adi-adi.

—Ez iezadazue kasurik egin, ez! —oldartuz, gero eta ozenago—. Ikusiko duzue garaia iristen denean! Beranduegi izango da jada!

Berriro ere, deserosotasuna da nagusi bagoian. Denon mesederako, trena gelditu denean kanporako bidea hartu du profetak, mutil-kuadrillaren ingurutik ohi baino ozenagoa izan den hasperena entzun denean. Guztiz asaldatuta, atek ixten ari ziren bitartean ere

garrasika entzuten zen nasatik gizona: “Egin barre, bai! Beranduegi izango da, beranduegi!”. Geltokia atzean utzi eta segituan lasaitasunezko irribarreak eskaini dizkiote bidaiariak elkarri, aurpegi zurrinak alde batera utzita».

Egunerokoa motxilan sartu du atzera bagoi-koek idazletzat duten horrek, laneko geltokiaren gertutasuna ikusita. Erlojuari begiratu dio berriz, zortziak eta bost dagoeneko! Berandu dabil eta egunerokoari buruzkoak azkar batean joan zaizkio burutik. Erdiguneko geltokian jaitsi eta pauso luzeak eginez abiatu da eskaileretatik gora. Bulegora doan korridorean, alde bietara mahai berdin-berdinen ilara luzeak ditu; lurrera begira joan da ahalik eta bizkorren. Izan ere, iruditzen zaio beirazko horma modernoetatik lankideen aldera begiratzen ez badu, haiek ere ez dutela bera berandu ailegatzen ikusiko, umetan begiak eskuez estaltzean bezala.

Goiz gogorra jasan behar izan du. Lanez lepo dabil; eta hori gutxi balitz, gainbegirale petrala kontu eske joan zaio, ea zergatik iritsi den berandu bulegora. Loarekin deskuidatu dela eta estresatuta dabilela azkenaldian erantzun dio, ez dela ostera gertatuko. «Hala izan dadila», handiuste nazkante hark ihardetsi, iragarkietan ageri diren plastikozko irribarre faltsuen moduko imintzio ezin gogaikarriagoaz lagunduta.

Behin eginbeharrak amaituta, hasi da motxilan gauzak sartzen, kopetilun. Amorruren amorruez, egunerokoan idatzitako orriei indarrez tira egin eta

zaborrontzira bota ditu, pilota zimurtu gisa. Zer ari ote zen pentsatzen haiek idatzi zituenean? Ez al zen ohartzen laneko arazoez? Nortzat zuen bere burua, Atxagatzat? Uribetzat, akaso? Ez, berak ez du halako izenik, beste gizaki bat gehiago da, besterik ez, uni-bertso mugagabeen higitzen den «puxtarri» urdin hartan. Bagoiko bidaiari haiek guztiak berari iruditu zaizkiona baino ez da bera ere beste pertsonentzat: ordu erdiz tren berean egokitutako ezezaguna. Nasara jaitsi eta trena tunelaren ilunean desagertu ondoren, seguraski inoiz ere ikusiko ez duen jendea. Denak dira euren bizitzaren erdigune, denek dituzte gaindiezinak diruditen oztopoak eta kezka erraldoiak. Denak hain arduratuta eta nahigabetuta, munduaren handitasunarekin alderatuta hutsaren hurrengo izanda...

Baina ez al dira denak bitxiak eta bereziak? Ez al ditu nork bere ezaugarri bereizgarriak, nahiz eta xumeak izan? Horregatik, egunerokoaren orriak zakarrontzitik atera eta motxilan sartu ditu. Berak ere badu zer kontatua, eta hantxe utziko du, gordeta. Horrela, trenaren azken-azkeneko geltokian hanka jartzean, bere bizipenak ez dira galduko iluntasun ziurgabeen. Izan ere, ez al du garaia besteren-gandik bereiziko duen izena eta izana garatzeko?

(MIN-)MALKOAK

Kattin Madariaga Apaolaza

Arantza (Nafarroa)

Egun argitsua zen hura. Leihotik begira nenbilen. Ez nuen kanpora irteteko gogorik, baina etxe barruan kabitu ezinik nengoen. Idatzi egin nahi nuen, baina boligrafoak tinta gabe neuzkan. Paretak bota nahi nituen, baina zurruneziak ziren. Kolore biziz beteriko koadroak zuri-beltzean ikusi nahi nituen. Oihu egin nahi nuen, baina ez neukan ahotsik. Negar egin nahi nuen, baina ez zitzaidan malkorik geratzen.

Nire lagunen ahotsak entzun nituen, edo ezagunak besterik ez ziren jada, ez dakit ziur. Musika-kaskoak jantzi nituen belarrietan, gainerako munduan gertatzen zen edozer ez entzuteko asmoz. Momentu batean, ni lagun horietako bat izatea amestu nuen, baina segituan alde egin zidan ideia horrek burutik. Ez nuen inoiz lortuko berriz ere talde horren parte izatea.

Zigarroa piztu nuen. Gurasoak ez zeuden etxean, ezin ninduten ikusi. Berriro ere eztabaidan hasi ziren eta, aita tabernara joan eta ama lanera abiatu zen. Ez zeukan jada zentzurik erretzeak, ez bainintzen lagunekin irteten, eta ez bainion nire handi-

tasuna inori erakutsi behar ke artean nengoen bitartean, baina, halere, erretzen jarraitzen nuen, ez nekien zergatik baina, erre egiten nuen.

Azkar bukatu nuen lehen zigarroa, beraz, bigarren bat piztu nuen. Leihotik begira jarraitu nuen, musika-kaskoak jantzita. Kantu lasaiak entzuten nenbilen, aspaldiko partez. Neure barruan orroka zebilen piztiak lasaitasun pixka bat eskatzen zidan, eta bada, nire hirugarren *playlista* aukeratu eta zutik mantendu nintzen, nora begira nengoen ere jakin gabe. Segituan ohartu nintzen ez zela erabaki ona izan musika hori entzutea. Kanta erromantikoak baino ez ziren, norberak bikotekidea izanez gero mundua ederragoa dela dioten kantak. Gezurra da hori. Ezin gara inoren menpe bizi, eta are gutxiago bikotekidearen menpe. Ezin dugu beste pertsona batek gure bizitza konpon dezan onartu, geuk egin beharreko gauza da.

Dagoeneko umorea ere txartuta, sukaldera abiatu nintzen. Zigarro-paketea bukatuta neukan jada, eta gosea etorri zitzaidan. Hilabete lehenago izan balitz, lagunekin pipa batzuk jatera irtengo nintzen kaleko bankuan eserita, baina gauzak nola zeuden ikusita, etxeko egongelako sofan eserita jan nituen pipok, bakar-bakarrik, inoren beharrik gabe.

Ez nekien zer egin. Ez nuen ezer egiteko gogorik, baina aldi berean mundua «jan» nahi nuen, jendea-ri erakutsi neu ere jende horren parte nintzela, banintzela nor. Baina ezin nuen, ez nintzen kanpora irteten ausartzen, ez mezu bat idazten. Ezin nuen, nahi izan arren, nire gorputzak ez zidan uzten. Beldur nintzen, ez nekien zeren beldur baina, ezinego-na sortzen zidan beldur horrek.

Nahiz eta bizirik egon, hilda sentitzen nintzen. Bizitarik ez baduzu, zer da bizirik egotea? Ni ez nengoen bizirik, eta onartzen nuen. Onartzen nuen ez neukala bizitzeko bizitarik, aurrera egiten lagunduko zidan kuadrillarik, onean eta txarrean maitatuko ninduen familia perfekturik, egunero «maite zaitut» esango zidan bikotekiderik... Onartzen nuen, baina min ematen zidan.

Aita ez zen tabernatik bueltatzen. Orduak eta orduak joan ziren, eta ageri ez. Berriro ere mozkortzen egongo zen, algaraka, eman beharreko negarrak ezkutatuz. Maiz haserretzen ziren gurasoak, edozein aitzakia nahikoa zuten eguna elkarrekin muturtuta igarotzeko. Alde txiki bat zegoen, baina. Amak benetan gaizki pasatzen zuen, ez zen egoera hura jasateko gai, baina, halere, lanera joaten zen egunero-egunero, alaba eta maite ez zuen senarra mantentzeko. Aita, berriz... Aitari berdin zitzaion guztia. Agian gaizki pasatuko zuen, baina ez zuen hori azaleratzen, behintzat. Tabernara joaten zen, eta ez zen goizaldeko ordu txikiak arte azaltzen, eta ni kezkatuta egoten nintzen, oso kezkatuta. Banekien gurasoek neugatik jarraitzen zutela elkarrekin, banekien neugatik ez balitz aspaldi bananduko zirela, baina, nolabait, nik gaizki pasatuko ote nuen beldur ziren, gurasoon banaketa gainditzeko gai izango ez nintzela pentsatuko zuten... Ez zuten ikusten nik nahiago nuela, askoz, bananduko balira, bi urte barru adin nagusikoa izango nintzela eta etxetik alde egingo nuela, eta hainbat hobe zela ahalik eta azkarren bakoitzak bere bidea hartuko balute, bata bestearenean oztoporik jarri gabe.

Etxea ere ez nuen «etxetzat» hartzen. Babesa ematen zidaten lau paretak ez ziren nahikoa babes. Gehiago behar nuen. Ikusi ezin daitekeen etxe bat, ukitu ezin daitekeena, usaindu ezin daitekeena, baina senti daitekeena. Ez nuen horrenbeste ere eskatzen: etxe bat. Nahiz eta asko eskatzen ez nuela iruditu, ez zitzaidan iristen. Kale gorrian biziko banintz bezala sentitzen nintzen, ezezaguntzat hartzen nituen ezagunez inguratuta.

Ez nuen lortzen neure burua sentitzea, tira, ez nuen lortzen ezer sentitzea. Ez sentitzea, ez pentsatzea, ez maitatzea, ez sufritzea, ezer ez. Neure buruarekin bakarrik nengoen, baina hori ere ez neukala iruditzen zitzaidan. Maitatu egin nahi nuen, pozez negar egin, goizaldera arte lagunekin egon, gozatu, ardurarik gabe bizi, bizitza izan, sentitu... Baina ez nuen lortzen, saiatu arren.

Zergatik ni? Zergatik ez zitzaion beste inori geratu? Zergatik niri, baina? Hobe esanda: zergatik bizi behar inork hori? Zergatik geratzen da jendea egun batetik bestera kuadrilla gabe geratu, eta zergatik ematen du horregatik munduak bukatu behar duela? Gizartearen kontuak zirela uste nuen, munduak inorengatik ezer ere egiten ez duela, dena idealizatuta dagoela; jendeak normaltzat jotzen duenetik at bazaude, ez duzula errespeturik merezi, eta hark barrezka erabiltzeko jostailua bihurtzen zarela, beste ezer ere izateko eskubiderik gabe.

Ez nion amari neukan arazoa kontatu nahi, ez nion buruko min gehiago eman nahi. Banekien psikologo bat bilatuko zidala, eta zeuzkan azken aurrezkiak niretzako terapia ordaintzen xahutuko

zituela. Eta nik ez nuen hori nahi. Etxe bat nahi nuen nik, etxe ikusezin horietako bat.

Nahiz eta esna nengoenean ez nuen ezer sentitzen, amets egitea, behinik behin, lortzen nuen. Lo nengoen bitartean bizirik sentitzea. Nekearen nekez begiak itxita neuzkala esna sentitzea, inoiz baino biziago. Arraroa ematen duen arren, ametsetan neukan benetako bizitza. Egunaren amaiera noiz iritsiko egoten nintzen, desiratzen, betazalak jaisterakoan kolorez beteriko belztasuna ikusteko.

Hantxe nengoen, sofan eserita, itzalita zegoen telebistari begira, ezerezari so. Pizteko tentazioa izan nuen, baina urrutiko kontrolagailua hartzeko indarrik ez neukan. Hantxe geratu nintzen, bi hankak gurutzatuta, barkardadearen aurrean txiki. Besarkada bat behar nuen, besarkada emango zidan norbait behar nuen. Beharrak ase ezina da bizitzak eman diezagukeen min handienetako bat. Zerbait arima guztiaz desiratu eta ezin eskuratu, ezinbestekoa duguna ezin gureganatu! Mina da hori. Larruazalean ikusi ezin daitekeen zauria, baina jasangaitza dena.

Sofatik altxatu nintzen eta komunera joan. Bidean buelta hartzea pentsatu nuen, baina beharrezkoa zen jarraitzea, beldurrei aurre egitea. Atea gurutzatu nuen, baina ez nuen konketara begiratu. Ez, behintzat, hasiera batean. Zutunik geratu nintzen, blokeatuta. Gorputzak ez zidan mugitzen utzi. Luzaro egon nintzen bertan mugitu gabe, baina, halako batean, hanka bat mugitu zitzaidan, jarraian bestea, eta konturatzerako, konketaren gaineko ispiluren aurrean nengoen, bertan zegoen neskari

so. Neu, neuri begira. Neu, neurekin. Neu. Mundutik at. Neu.

Darkarka nengoen, inoiz ez bezala. Zutik mantentzeko ere arazoak nituen. Ahul sentitzen nintzen, gorputzak erantzungo ez balit bezala. Berriro ere, negar egin nahi nuen, baina, berriro ere, malkorik isuri ez. Ez nuen ni izan nahi. Beste pertsona bat izan nahi nuen, nire egunerokotasunarekin zerikusirik ez zeukan pertsona bat.

Ispiluaren islak asko erakusten zuen. Bizitza gogorra ageri zen. Azken asteetan bizitu nuen guztia ageri zen. Amona hil zitzaidaneko mina ageri zen. Ikasketengatik neukan presioa ageri zen. Sufrimendua ageri zen. Egin gabeko negarra ageri zen. Algora faltsu guztiak ageri ziren. Neugan ikustea nahi ez nuen guztia ageri zen. Edo agian ez zen ageri, baina nik ikusi egiten nuen hori guztiori. Bizi izatea merezi ez zuen bizitza hori ikusten nuen. Begiak itxi nituen, baina oraindik ere ikusten nuen. Barnean neukan, beraz, ezin nuen lortu ez ikustea, eta are gutxiago begiak itxita neuzkala.

Gela batek mundu bat zirudien, komuna batek unibertso bat. Kabitu ezin nintzen unibertso bat. Sabaian zegoen bonbillak nire iluntasuna argitzea ez zuen lortzen. Itsutzeko moduko argia zen begientzat, baina ez bihotzarentzat.

«Bihotz» hitzak zera esan nahi du: 'bi hots, bi soinu'. Nik soinu bakarra nabaritzen nion neureari, baina. Neurea eta neurea bakarrik zen soinua, beste inoren oihartzunik gabe, neurea zen. Soinu bakarrak areto osoa bete zezakeela pentsatzen nuen, baina laster ikasi nuen arima bezalako esze-

natoki batean ahots bakar batek ez duela nahiko burrunba sortzen, laster ikasi nuen neu bakarrik ez nintzela neuretzat nahikoa. Laster ikasi nuen pertsonok beste pertsona batzuen beharra dugula, bi hots behar direla bihotz bat osatzeko.

Amona zenaren gelara joan nintzen. Betidanik bizi izan zen amona gurean, eta beste ezer ez bezala maite nuen. Dena kontatzen nion, eta dena entzuten zidan. Neukan arazo txikienari ere garrantzia ematen zion, eta neure aurpegian irribarre baten itzala-edo agertzea lortzen zuen, beste inork ez bezala. Gelaren izkina batean zegoen besaulkira abiatu nintzen. Bertan eserita egoten zen amona, puntua egiten zuen bitartean irratia edo Benito Lertxundiaren diskoak entzuten.

Izugarri gozaten zuen nirekin. Nire mundua ulertzen saiatzen zen, berearekin alderatuta oso ezberdina zen arren. Halere, ulertzen saiatzen zen. Oroitzen naiz behin, zahartzean bera bezalakoa izan nahi nuela esan niola, eta hark nik askoz gehiago nuela zain esan zidala: «Neska argia zara, maitekorra, zeure buruaz segurua, alai, desberdina bezain ederra. Zu bezalako pertsonak mundu osoa dute zain, eta ezin dira puntua egitera mugatzen diren ni bezalako amona bihurtu. Zuk gehiago merezi duzu, eta gehiago lortuko duzu». Bere hitzak buruan dauzkat oraindik ere. Amona zen neugan sinesten zuen bakarra. Neu ere banintzela nor ulertzen zuen bakarra. Nire min guztiak ulertzen zituen bakarra. Kuadrillak ulertu ez duena amonak ulertu zuen, nik ezer kontatu ez nion arren.

Pertsonak ez dira betiko, ordea. Beren oroi-tzapena betiko izango dugu barruan, baina haiek denbora mugatu bat dute, guk onartu nahi ez arren. Denak dauka hasiera eta amaiera, eta amonak ere izan zituen bereak. Egun arrunt batean ama etorri zen eskolara, eta arraroa egin zitzaidan, ez baitzen inoiz ere etortzen neure bila. Zer zen galdetu nionean, etxera azkar itzuli behar genuela esan zidan. Nik, ordea, lagunekin jolasean geratu nahi nuen eta, horrela bota zidan amak, inolako estalkirik gabe: «Amona hil egin da, etxera joan behar dugu».

Hurrengo bi hilabeteak beltz gogoratzen ditut. Amonaren falta handia zen, ez zen erraz betetzeko zuloa. Ez nuen inorengan ikusten haren begietan sumatzen zen distira nirekin hitz egiten zuenean. Ez nuen inorengan sentitzen babes hori. Ez ninduela inork horrenbeste maite pentsatzen nuen. Amona behar nuen, ez beste inor.

Gelaren erdian zegoen ohean etzan nintzen. Neure buruari galdetu nion, ea zergatik amonak hain erraz ulertu zuena nire kuadrillak ezin zuen onartu, ezin zuen normaltzat jo, lasaitasunez hartu.

Sabaiari begira geratu nintzen, luzaro, eta amona neuri begira zegoela igarri nuen. Ez, ez zitzaidan iruditu, ez nengoen zoratuta. Bene-benetan sumatu nuen. Barruan nuen zerbaitek esan zidan amona neuri so zegoela, eta nitaz harro, kuadrillari kontatzeko adorea izan nuelako. Amona nola sentituko zen pentsatze hutsak indarra eman zidan, eta zuzen jokatzeko nentzela pentsatu nuen, ez niola inori minik egin. Naizen bezalakoa maite nahi ez banindu-

ten, akaso haientzat gehiegi nintzelako zen, haien aldean ni balio handikoa nintzelako.

Ganbarara joan nintzen. Trastoz beterik zegoen gela zen edonorentzat, agian, baina niretzat deskonektatzeko leku lasaia zen. Haurtzaroko oroitzapen gehienak bertan neuzkan. Zeuden tramankulu bixienak hartu eta jostailu bilakatzen nituen. Mundu bat sortu berekin. Amesten nuen tarteka umetan nuen bizitasuna berreskuratzea, baina ezinezkoa iruditzen zitzaidan. Denborak pertsona berriak bihurtzen gaitu.

Hantxe zeuden, gurasoek gazte-garaian entzuten zituzten artisten diskoak kaxetan sartuta, maindire zaharrak esekita, baratzerako tramankulu zahar batzuk, lastaira zahar pare bat, aitona-amonen ezkontzako argazkiak, eta baita neure gurasoenak ere... Hantxe, txikia nintzela ganbarara igotzean ikusten nuen guztia, baina halere, ganbara askoz hustuago nabaritu nuen. Azken pintzelkada falta zitzaion koadroari, nire irudimena. Baina, koadroa beltza zegoenez jada, alferrik zen pintzelkadak gainetik margotzea, ez ziren ikusiko.

Izkina batean eseri nintzen, eta umetan gela hartan nola egoten nintzen oroitzen hasi nintzen. Gurasoek lagunekin irteten uzten ez zidatenean igotzen nintzen ganbarara, eta bertako tramankuluak baliatzen nituen, «ni» berriak sortzeko. Batzuetan DJa nintzen, bestectan etxekoandrea, hurrengoe-tan nekazaria... Labur esanda: izatea lortu ez nuen guztia nintzen orduan. Batez ere, zorionsu nintzen.

Leku segurua nuen ganbara. Banekien hara igotzen nintzen guztietan ahoan irribarrea bueltatuko nintzela behera. Banekien mundu lasai bat neukala zain, pozik egon nintekeen mundu bat, eta hori nahikoa zen niretzat. Mundu horrek urteak joan ahala bueltak emateari utzi zion, eta ez zen jada mundua, dagoeneko gela zen, gela arrunt bat.

Lagunak hara igotzen nituen garaia etorri zitzaidan gogora. Elkarrekin trasteak jostailu eta gelak mundu bihurtzeko gai ginen garaiak gogoratu nituen. Berriro ere malko bat isurtzeko gogo jasangaitza piztu zitzaidan, baina begiek beti bezain lehor jarraitu zuten; arimako zauria irekita geratu zen.

Ganbaratik irten nahi nuen, baina gorputzak ez zidan utzi. Nolabait, urte luzeetan seguru izan nuen lekua oraindik ere segurua zela esan nahi zidan bihotzak, eta bertan gera nintekeela, «ni» berriak sortuz. Baina, buruak batzuetan bihotzak baino indar handiagoa du, eta buruak ez nituela «ni» berriak sortu behar zioen, nintzen «niarekin» aurrera jarraitu behar nuela. Beraz, gorputzari eta bihotzari kontra eginez, zutunik jarri, eta pausoka-pausoka, ganbaratik irten nintzen, nire mundu segurutik segurua ez nuen mundura salto egin.

Munduak mundu ziren, gelak gela, jendea jende, arimak arima. Baina ni ez nintzen neu. Gainerakoen «nia» ez zen neurea zen «nia». Nire inguruak ezagutzen zuen neska ez zen nik ezagutzen nuena. Egun horietako «nia» ez zen bizi izan zituen gainerako 16 urteetako «nia», bi pertsona ezberdin ginen, baina halere pertsonak ginen biok. Gorputz

berean harrapatutako bi pertsona ginen, baina pertsonak, denaren gainetik pertsonak.

Kalea mundu eta etxea kale bihurtzen zaigun unean, non dago etxea? Tintarik gabeko boligrafoetan, non dago idatzitako istorioa? Pareta zurrunegetan, non dago atea? Kolorez beteriko koadroetan, non dago bidea erakusten digun argi zuria? Barruan geratu zaizkigun oihuetan, non dago atara beharreko hotsa? Isuri gabeko malkoetan, non dago sentimendua? Non nengoen? Zergatik nengoen? Zer nintzen? Nor nintzen? Hainbeste galderarentzat zergatik ote dago hain erantzun gutxi?

Ni? Neure arima? Neure bihotza? 16 urteko neska gaztea? Ez. Neuri egin zidatenaren ondoren geratu zena? Bai, horixe nintzen. Min guztien ondoren geratu zen pertsona apurra, lagun txarrek bakarrik utzi zutenean barruan ebaki handi eta luze bat geratu zitzaion neska.

Nire gelara itzuli nintzen. Bertan nuen neure panpina zain, ohearen gainean. Besarkada estua eman nion. Triste zen gertu sentitzen nuen bakarria objektua izatea. Baina, halere, bizitza osoan eduki nuen alboan, bera izan zen 16 urte luzeotan eztabaidarik sortu ez zidan bakarria, amonaz gain, baina, hura joan zitzaidanez, panpina bakarrik geratu zitzaidan, horixe bakarrik nuen benetako lagun. Besarkada luze eta sakona eman nion, baina ez zen malkorik isuri. Nahi izan arren, masailak lehor nituen oraindik ere, begiak busti gabe.

Leiho-ertzerara bueltatu nintzen. Ez zen jada ordu pare bat lehenago entzuten zen lagun-taldearen soinurik barrundatzen, beraz, soinu horien lagun-

tasunik ere ez neukan. Isiltasun sakona, luzea, amai-gabea. Eroso eta aldi berean deseroso sentiarazten ninduen isiltasuna. Bihotzeraino iristen zitzaidana.

Norbaiten soinu bat falta nuen, norbaiten hots bat, norbaiten irri bat, norbaiten begirada bat, norbaiten «maite zaitut» bat.

Zalantza handiz, eta eskuak dardarka baina, mugikorra atera nuen. Bilatzailean aplikazioaren ize-na bilatu nuen, dudaz beteta. Ez nekien ongi ala gaizki nembilen jokatzeko, nekien gauza bakarra zen, norbaiten beharra nuela. Bi minutu iraun zuen aplikazioak deskargatzen, neure bizitzako bi minutu luzeenak izan ziren. Instalatu zenean, behatzaz sartzeko eman nion, nahiz eta hori dardara bizian zebilen. Zera izan zen agertu zitzaidan lehen esaldia: «Zure laranja erdiaren bila zabilta? Norbaitekin amodiozko istorio bat bizi nahi? Hementxe aurkituko duzu zeure bizitzako maitea! Horretarako, hurrengo galderari erantzun besterik ez duzu». Bihotza ezin azkarrago taupaka nuen. Hurrengo galderak? Zer galdera? «Hauxe duzu lehen galdera: zer sexurekin identifikatzen zara? *a: neska, b: mutila, c: beste bat, d: ez dakit ziur*». Lasaitua hartu nuen. Lehenbiziko aukera sakatu nuen, «a: neska» aukera, eta beste galdera bat atera zitzaidan.

«Hemen daukazu hurrengo galdera: zein sexu-joerarekin identifikatzen zara ondoen? *a: heterosexuala, b: homosexuala, c: bisexuala, d: beste bat, e: ez dakit zihur*». Ezin nuen arnastu. Ez nekien zer sakatu. Dena lauso ikusten hasi nintzen, neure buruaren kontrola galtzen. Kosta zitzaidan lasaitzea, ordu erdi behar izan nuen neure onera bueltatzeko. Zer

egingo nuen? Neure burua onartu, ala besteek nahi zuten «nia» bultzatu? Neure buruarekin pozik egon, ala gainerakoak nirekin pozik egotea bermatu? Zoriontsu izan, ala nire ingurua zoriontsu egin? Zer arraio! Bizitza izorratuta neukan jada, zergatik izorratu gehiago neure burua ez onartuta? Hasiera batean hori pentsatu nuen, baina ez zen hain erraza izan, neure etorkizuna jokoan zegoen, zati handi batean. Ezin nuen bihozkada batez sakatu botoia, neu nengoen jokoan, ni neu. Asko kostata baina, «b: homosexuala» aukera sakatu nuen.

Orduantxe atera zitzaidan denbora luzez atera ez zitzaidan malkoa. Zorion-malkoa nuen.

DENBORAREN TXOTXONGILO OMEN GARA

Iraide Mitxelena Rivero

Errenteria

Ttan-ttan, ttan-ttan...

Malkoak masailetik behera suizidioan
sinfonia ilaun eta atonal batean,
galbidera zuzenduriko intziri zein deiadarrekin.

Tik-tak, tik-tak...

Galdetu diot,

termodinamikaren bigarren legea akort betetzen
duen erlojuari,

$$dS \geq 0,$$

ea bizirautea zilegi den bederen.

Ez dut erantzunik behar izan,
bere kadentzia monotonon ostendu baita,
inoiz baino errukigabeago.

(Nor gara?)

Surflari ezezaguna
(errealitatea arrotz egiten zaien) amets
tolesgabeen sokaren gainean
dabilen funanbulista da,
olatuen sosegu kresaltsuan
igeri egiteko irrikitan.

Ez daki, baina,

olatuak handi geratzen zaizkiola;
bere izerdi-tantek uhinez beteriko
kafearen mingostasunean ezkututako sentimendu
hitsak
dira bere sosegua mugarri.

Piano-usaina dario aire melankoniatsuari,
izenik bako maitale bat maitasunaren osotasun
osoegia
partitura eskas batera mugatzen da ari.
Saiakera antzuagorik...!
Maitasuna horixe besterik ez balitz,
gaitz erdi.
Galde diezaiela eguzkiari goizero diosala egiten
dioten
lorategian *okupa* gisa dauden loreei.
Haiek bai jakintsu,
bai amoros!

Marka ezezaguneko zigarroa
samintasunaren mugagabetasunean ito,
eta ahoak kanporatutako ke-kiribilak
sabaian dira irristatzen trakeski.
Bizitza *ostia* handiagorik ere emana da.

Tik-tak, tik-tak...

Lasai, nik esango dizut nor garen:
sasi-amets liriko eta
egia absolutuaren distopiaren pentagraman
gara sol.
Bulkadaren energia zinetiko eta

senaren marruskadura-indarraren
arteko lehian
gaude hor.
Erloju-ardatz eta bihotz-taupaden arteko
sinfonian
gara nor.
Galkor.
Hilkor.

Tik-tak, tik-tak...

Aaah, denbora...
amonaren masaileko zirrikituen bidaiari,
azukrezko maindirez estalitako ilearen margolari...

(Zertarako?)

Gustura galdetuko nioke,
aintziraren murmurioa eta zaurgarritasunaren
rapsodiak eratutako polifoniarik...,
zetzua ezerezean galdu duen whisky botilari...,
zure begiek igorritako distira eta pertsianako
zirrikituetatik bahetzen diren izpien arteko
norgehiagokari...,
ikararekin topa egitera bultzatu ninduen
ortzimugari...,

ZERGATIK???

Halere,
zertarako ase ene duda-mudak,
jakintza hutsalkeria ustelaren simetria axiala baino
ez bada?

Gainera,
bizitzaren trenak jakintasunean geltokirik (edo
astirik) ez duelakoan nago,
(gure) ezjakitearen aitopen-eza (gure) ergeltasun
amaigabeaz horditzen baita.

Nire usteak ustelak balira...
Oro begitazio psikozirikatzailea besterik ez balitz...

Tik-tak, tik-tak...

Atzoegiko kontuak alde batera utziz,

ORAINA BADOA,
IHES EGITEN DIGU
IRAGANERANTZ,
DENPORAK HILTZEN GAITUEN ARTE.

Eta hortxe ulertuko dugu izango garen
ahantzurarantz doan denbora baino ez garela.

Gainerakoa,
literatura da.

GLURP, GLURP!

Beñat Mateos Zeberio

Asteasu

Glurp, glurp!

Glurp, glurp!

Alkohol-botilari beti zurrut,
beste botila bat hustu dut.

Tzak, tzak!

Tzak, tzak!

Kartera hustuaren hotsak,
belarrietan hain mingotsak!

Krak, krak!

Krak, krak!

Nire bihoztxo hauskorrek
egin dituen hots gogorrek.

Agur, agur!

Agur, agur!

Ez nekien nintekeela bihur,
sekula hitz horren beldur.

Plas, plas!

Plas, plas!

Atea itxi duen arte garratz,
ez dago besterik, hortaz!!!

Ttak, ttak!

Ttak, ttak!

Idea anitzen norantzak
gidatzen ditu nire hankak.

Idea, idea!

Idea, idea!

Finkatu dut nire helbidea,
Intxaurrendoko trenbidea.

Dizz, dizz!

Dizz, dizz!

Eguzkia aurpegian berriz,
trenbidean etzanda jarriz.

Dzum, dzum!

Dzum, dzum!

Trena gerturaten entzun
eta nasan dena ikuskizun.

Karf, karf!

Karf, karf!

Siglak nigana datoz: CAF,
gainetik pasatu zait eta plaf!

Dar, dar!

Dar, dar!

Nire izenak hainbat titular,
lehenengoz naiz popular.

Krik, krik!

Krik, krik!

Orain ezagun izanagatik,
heriotzan bakar-bakarrik.

....,

....,

Agur, onomatopeia denak,
trenbide hau lotzen zutenak!

URA ETA KALIMA
Aiala Garabieta Oribe
Bilbo

Egun umelak

Egun umeletan zilegi da zu maitatzea,
kalimarekin zatozelako nire bila.
Nire azalak zurea oraindik ez den usaina
beregangatzen du; berekoi, zurekoi.
Egun umeletan arras ederra da bizia,
edertasuna tristuraren errautsetan
ezkuta daitekeelako, lotsati.
Egun umeletan eguzkiaren zauriei
odola darie, zerutik irristaka
tanta lodietan. Plaust!
Edan du lurrak izarraren odola
eta ilargiari eskaini dio eguzki-lorea.
Egun umeletan sikatzen da beldurra
eta ernaltzen naiz ni.

Doluaeren desertua

Idien lehian jausten dira
grabitaterantz igotzen, jotzen,
nire kokotsaren amildegian salto
odolezko bi malko,
biziaren salbiaren berotasuna eta

gezatasuna dakarte haien negarrekin.
Orduan konturatzen naiz:
non gelditua da nire barruko mina,
mina baino ez dena, ez bizia?
Uraren gazitasuna agortu al zait?
Masaileko ibaiek oihukatu didate
zure doluak eraman zuela,
sikatu dizkidala barnak.
Mina ateratzeko naizen haragia,
naizen odola geratzen zait bakarrik.
Esku-ahur hutsak dituen naufragoa,
Hare-garauek ihes egin didate
arnasatik, ahotsetik, zure hutsunetik.
Horrexegatik dira odolezkoak malkoak.

Akaso gure azala

Ohearen gosea asetzea zer den biok dakigu.
Mairidiretan katramilaturik utzita azalaren aztarna,
baretua gorputzaren irrika.
Bakoitzak, ordea, bere tankeran ezagutu du ohea
norberarekin, besteekin, «bestearekin».
Bestearen haragizko enborrez eta adarrez gosatuta,
zuk ez nirea, nik ez zurea, finean, gurea ez den azala
dastatu dugu, edan duzu, arnastu dut, maitatu dugu.
Gizarteak gorena, nagusiena, helduena
deritzon azken pausua
zuk ezagutu zenuen, nik oraindik ez,
eta denboran zuk igeri egingo bazenu nigana,
eta ni zugana gerturatuko banintz kalima artean,
agian elkar aurkituko genuke.
Akaso zurea eta nirea, finean geurea den ohea,
partekatuko genuke, irakatsiko eta ikasiko.

Besteen zaporea hartuko genioke bata-besteari,
jakin gabe besteena dela,
pentsatuz, sinistuz, nirea eta zurea direla,
fede itsuz izatea desiatuz.
Ez dira, aitzitik, baina zer inporta du?,
bestearen bailarak eta mendiak deskubrituko geni-
tuzke,
aurretik aurkituak eta gaina hartuak izan arren.
Akaso tupust egingo nuke zurekin,
akaso zuk nirekin, akaso «akaso» hori
materia pisutsu eta ukigarria den,
denbora-espazioan lekua hartzen duen
«bada» bilakatuko litzateke, edo akaso
«gertatu-zitezkeen-gauzak-baina-gertatu-ez-direnak»
bihurtuko lirateke gure «akaso» denak.

